

## 2. kapitulua:

# IZENA

### 2.0. Sarrera

Perpauaren oinarritzko osagaietako bat *izen sintagma* dugu. Izen sintagmak, aditz sintagmarekin batera, osatzen du perpausa. Izen sintagmaren barmeko egitura hainbat elementu bereiz ditzakegun arren, funtsezkoena eta oinarritzkoena *izena* bera da, edo, izenaren ordean, *izenordaina*. Hori ikusten da ondoko adibideotan:

- (1) [Peruk] esan digu
- (2) [denda horretan erosi duzun tresna] hondatu zait
- (3) [zeuk] jakingo duzu zer egin

### 2.1. Izenen sailkapena

2.1.1. Esan dugunez, izen sintagmak era askotakoak izan daitezke, hurrengo esaldietan ikusten den bezala:

- (4) [Andoni] etorri da

- (5) [Bost gizon] etorri dira
- (6) [gure Andoni hori] etorri da
- (7) [Euskadiko bost gizon txiki] etorri dira
- (8) [hori] etorri da
- (9) [bost txiki] etorri dira

Izen sintagma hauen guztien ardatza *izen sintagma* deiturak berak aditzera ematen duen bezala, *izena* dugu. Hala ere, badira goiko zerrenda horretan zenbait izen sintagma, itxuraz bederen izenik agerian ez daramatenak: azkeneko bi horiek, esate baterako. Nola esan dezakegu orduan izen sintagmaren ardatza izena dela izen sintagma hauetan izenik agerian ez badugu? Non da izen hori?

Halako kasuetan izena ezkutuan utzi dugula esanen dugu, adibide horietan, batek pentsa dezakeenez, izena isildu egin baitugu:

- (10) [*andre* hori] etorri da
- (11) [bost *ume* txiki] etorri dira

Hortaz, izen sintagma elementu desberdinez osatzen bada ere, denetan bada beti agerian edo ezkutuan nagusia gisa agertzen den bat: *izena*. Izen sintagmarik ez da berez izenik gabe.

2.1.2. Izen sintagman agertzen diren elementuak, funtsean hiru sailtakoak ditugu: ardatz elementuak, elementu atributiboak eta determinatzaileak.

*Ardatz elementuak*, esan bezala, "izena" nahiz "izenordaina" dira. *Elementu atributiboak*, berriz, *adjektiboak* osatzen dituzte (hauen barnean "izenlaguna" eta "izenondoa" bereizten ditugarik). *Determinatzaileen* artean, azkenik, "mugatzaileak", "zenbatzaileak" eta "determinatzaile zehaztugabeak" bereiziko ditugu.

• Nolanahi ere, kontu handia izan behar dugu, hitzak oso erraz aldatzen ahal direlako kategoriaz:

- (12) ur *hotza* edango dugu
- (13) *hotz* ikaragarria egiten du gaur

Hitz bera (*hotz*), adibide hauetan, izenondoa da batean eta izena bestean, bistan denez (ikus, gai hau dela eta, 5. kapitulua). Ber gauza suertatzen da ondoko adibideotan ere:

- (14) *gero* esango dizut
- (15) *geroak* esango digu ongi ala gaizki jokatu dugun

Hor, berez aditzondo dugun hitza (*gero*) izen bihurtu zaigu bigarren esaldian.

2.1.3. Izenak ez dira denak mota berekoak eta izenen artean *sail* bat baino gehiago egin daitezke. Izen batzuk, esaterako, arruntak dira, beste batzuk bizidunak, batzuk konta daitezke, beste batzuk, ordea, ez, e.a. Hona hemen nola egin dezakegun izenen arteko sailkapen nagusia.

2.1.3.1. Izenak izan daitezke, hasteko, *arruntak* edo *berezia*k:

- (16) etxe, andre, gizon, esku, e.a.
- (17) Josune, Koldo, Baiona, Baztan, e.a.

Izen arrunten eta berezien artean bereizteko orduan bi irizpide desberdin erabiltzen ditugu, nahiz eta, zenbait kasutan, irizpide hauek elkarren artean nahasten diren, ez baitaioz beti bat:

- irizpide formala
- irizpide semantikoa

• Irizpide formalarekin "formari", izenaren itxurari bakarrik egiten diogu kasu. Horrela, izen arruntek normalean determinatzailea hartzen dutela ikusten dugu eta izen bereziek, berriz, ez:

- (18) \*etxe erosi dnt
- (19) etxea erosi dut
- (20) \*Parisa polita da
- (21) Paris polita da

Irizpide hau ez da, hala ere, beti betetzen, hurrengo adibidean, esaterako, *Peru* izen bereziak ardaizten duen izen sintagmak determinatzailea hartzen baitu, nahiz izen berezi horren ondoren betiere beste osagai baten beharra dugun, normalean pertsona izenlagun batena, kasu honetan bezala:

- (22) Peru gurea Londresen

• Bigarren irizpidea, lehenbizikoa ez bezala, semantikoa dugu formala izan beharrean, eta oraingoan esanahia hartzen dugu kontuan. Horrela, izen bereziek erreferentzia zehatza dute: *Landres, Bernardo Atxaga, e.a.*, eta izen arruntak, aldiz, kategoria jakin bako elementu izena emateko erabiltzen ditugu: *etxe, ikasle, e.a.*

• Gertatzen da, ordea, bi irizpide hauek batzuetan gurutzaturik ere aurkitzen ditugula. Horrela, erreferentzia bakarra ez dutenak izan arren, mugatzailerik gabe agertzen zaizkigu izen batzuk zenbait kasutan:

- (23) errege, amabto, amabixi, osaba, e.a.

Hala ere, *errege* eta *amabto* izenen kasuak ez dira berdinak. *Errege*-k artikulua har dezake, nahiz ez dagoen garbi noiz. Badirudi izen, izenlagun edo izenondoren batek mugatzen duenean duela artikuluz agertzeko joera, *faraoi* hitzarekin ere halako zerbait gertatzen delarik.

Beste zenbaitetan, erreferentzia bakarra duten arren, mugatzaile eta guzti erabiltzen ditugu:

(24) ilargia, zenua, eguzkia, astelchena, abendua, e.a.

Leku eta erakunde izen ofizial askotan, erreferentzia bakarrekoak diren arren, mugatzailea beharrezkoa dugu:

(25) Azpeitia, Azkoitia, Bizkaia, Eusko Alderdi Jeltzalea, e.a.

"Jainko" eta "Jaungoiko" ere artikularekin, esan beharrik ez dago.

•Erreferentzia bakarra duten mugatzaile edo artikuludun hauekin kontu pixka bat izan behar da, zenbait kasutan azkeneko *a* hori artikulua baita, baina beste batzuetan izenaren zatia. Artikulua denean, izen sintagma mugatu guztiak bezala deklinatzen da: "Azpeitia", "Azpeitian", "Azpeitiako", "Azpeitiatik", "Azpeitira", e.a. Baina delako *a* hori hitzaren zatia bada, beti agertuko zaigu, kasu guztietan: "Donostia", "Donostia", "Donostiako", "Donostiatik", "Donostiara", e.a.

Idazleak kontuan izan behar du hortaz noiz den leku izen bat "Azpeitia" hitzaren erdukua eta noiz "Donostia" hitzarenekoa (hararako Euskaltzaindiak argitaraturiko herri izendia erabil daiteke).

Badira zenbait deitura, berez izen sintagma arruntak direnak: *Herria*, *Deia*, *Argia*, e.a. Kasu hauetan badirudi idazteko orduan bere osotasunean errespetatu beharke lirakekeela, izenaren ondoan marratxoak jarritz: *Herria*-ra, *Deia*-tik, *Argia*-tik, e.a. Hala ere, *Euskaltzaindia*, *Estatu Batuak*, *Euskaldunon Egunkaria* eta horrelakoetan ez da dudarik *Euskaltzaindik*, *Estatu Batuetatik* eta *Euskaldunon Egunkaritik* esan behar dela.

2.1.3.2. Izen arruntak izan daitezke *zenbakarriak* eta *zenbakaitzak*. Lehenbizikoak kontatzen ahal ditugu; bigarrenak, ordea, ez:

- (26) hamar liburu, bost etxe, lau gizon  
(27) \*bi olio, \*bost gorroto, \*hamar gari

Izen zenbakaitzak jarraituak diren gaietara dagozkie, edo hizkuntza bateko hizunak jarraitu modura ikusten dituenen: *ura, olio*, e.a. "Masa" moduan hartzen ditugu izen hauek.

Egia da, zemahe gisaz, izen batzuk bi modutara har daitezkeela:

- (28) *kafea* edan zuen [-zenb]  
(29) bi *kafe* eskatu ditu [+zenb]

Bigarren kasu honetan "kafea" zenbakarria da, baina jadanik ez du esan nahi isurkari jarraitu bat, masa modura ulertzen dugun zerbit, baizik "katilukada kafea". Berdintsu gertatzen da "su", "argi" eta beste zenbait izenekin ere.

2.1.3.3. Izen zenbakaitzak izan daitezke *neurgarriak* eta *neurgaitzak*. Honekin esan nahi dugu izen batzuk, kontagaitzak diren arren, neurtzen ahal direla. Baina ez da hori gertatzen izen zenbakaitz guztiekin, batzuekin baizik:

- (30) bost litro olio, hamar kilo irin  
(31) \*bost kilo maitasun, \*pila bat gorroto

Neurtzen ez ditugunekin, kantitatea adierazi beharrean, intentsitatea adierazten dugu, "handi", "luze" eta horrelakoak erabiliz.

Eskema nagusia, hortaz, honela geratuko litzaiguke:

izena: bereziak  
 arruntak: zenbakarriak  
 zenbakaitzak: neurgarriak  
 neurgaitzak

2.1.3.4. Beste ikuspuntu batetik, izenak *bizidunak* eta *bizigabeak* izan daitezke. Bereizketa hau semantikari baldin badagokio ere, ondorio handiak ditu euskal morfologian eta sintaxian. Hots, "etxe", "liburu", "harri", "bide", e.a. izen bizigabeak dira; baina "gizon", "asto", "Andoni", e.a. bizidunak direla esaten dugu.

Leku kasuetan izen bizidun bat ardatz duten izen sintagmek *-en(gan)-* edo *baita-* hartu behar izaten dute (ikus, nolanahi ere, genitiboaz geroago dioguna):

(32) etxetik etorri naiz

(33) gizonarengandik ez dut ezer espero

Hala ere, berez bizidunak diren izakiei dagozkien izen batzuk bizigabetzat hartzen dituzte euskarak, landare izenak, adibidez:

(34) arbolara igo da

Dena den, bereizketa hau ez dago batere garbi. Euskalki batzuetan "nitian", "zutan" eta horrelakoak inolako arazorik gabe erabiltzen dira hizkera arruntan eta literaturan ere tradizioa eta bidea egina dute aspalditik. Honen ondoan, oso hedatuak dira "gauza hauek elkarrengandik ongi berezi behar dira" bezalako esapideak, "gauza" izena, hain zuzen, bizigabea den arren.

Badira azkenik biziduntzat nahiz bizigabetzat jo daitezkeen hainbat izen, esanahiaren arabera bereizten ditugunak: gauza bat baita

"herria(ren)gan" ("populuaren baitan" edo, esan nahi lukeena) eta beste bat "herrian" (leku izen hutsa oraingo honetan). Era berean, "umetan" (biziaren aroa) eta "umeengan" (umeen baitan, alegia) edo "gizonetan" (gizonen artean) eta "gizonengan" (gizonen baitan). *Umetan* eta horrelako mugagabeak mendeberlekoak dira soilik; ekialdean beti mugatuak ageri dira literatura tradizioan: *umean*, *gaztean* eta horrelakoak alegia. Forma hauek guztiak, eta hauekin batera *zalditik astora*, *gizonetik gizonera* eta horiek bezalakoak geroago azalduko ditugu.

## 2.2. Izen bakunak, eratorriak eta elkartuak

Ikus dituzagun ondoko adibideak:

- (35) jatezte honetako *haragia* oso ona da
- (36) jatezte honetako *haragi salda* oso ona da
- (37) jatezte honetako *sukaldaria* oso ona da

Azpimarratu ditugun izen horiek, berehala ikusten da, ez dira denak maila berekoak. Lehenbizikoa *bakuna* dugu, elementu bakar batek osatzen duena. Bigarrena *elkartua* dela esanzen dugu, bere gain diren bi izenek osatzen baitute. Hirugarrena, berriz, *eratorria* da, izen autonomo eta zerbaiti atxikirik agertu behar duen atzizki batek osatua. Horra hor, bada, hiru izen mota, bere osagaien arabera sailkatu ditugunak. Izen elkartuei buruz esango dugu hemen zer edo zer (dena dela, hitz hauen sailkapena eta azterketa Euskaltzaindiaren LEF batzordeak argitara emandako *Hitz Elkarketa I* eta *III* liburuetan ikus daitezke).

### 2.2.1. Izen elkartu arruntak

2.2.1.1. Izen elkartuen artean, lehenik, *izen elkartu arruntak* ditugu. Izen elkartu arrunt hauen artean, hasteko, bi izenek osatzen dituztenak ikusiko ditugu:

- (38) *maisua-maistra* guztiak haserre dabilta azken boladan



- (39) *irri-barrea* etorri zitzaion aurpegira  
 (40) *atso sorgin* hark isatsa hartu eta denen aurrean zerurantz abiatu  
 zen  
 (41) *ezpata kolpe* batekin amaitu zuten borroka

• Lau adibide hauek sail berean sartu ditugun arren, zatimultzo desberdinak osatzen dituzte. Esate baterako, lehenbiziko adibidean (38) ageri den izen elkartu horrelako izenek pisu bera dute, ez da bat bestea baino garrantzitsuago, maila berean baitaude. Horrelako hitz elkartuei (hauen pareko dira *goi-beheak*, *arze-aurreak*, *zeru-lurrak*, *aita-amak*, e.a.) kopulatio deitu ohi diegu: horrelako elkarketa osatzen duten izenak eremu semantiko berekoak dira eta gehienetan antonimoak, elkarren kontrakoak. Hori horrela ez bada, nekez gertatzen da elkarketa:

- (42) \*denda horretan ez da *olio zakurrrik* saltzen  
 (43) ume honek ez ditu *aita-amak* ezagutzen

Gainera, izen horiek hartzen duten mugatzailea beti pluralean joaten da, adibideetan ikusten denez.

• Bigarren zatimultzoko (39) izen elkartuetako osagaiak ere maila berekoak ditugu, baina oraingoan, lehenbiziko azpimultzokoeekin gertatzen ez zen bezala, gauza edo pertsona bakarraz ari gara. Esanahiari dagokionez, objektu edo pertsona bakar horrek bi osagaiak adierazten dutena jasotzen du nolabait, nahiz agian, ondorioa zerbait desberdina izan. Horrela, "afari-merendua" ez da afaria edo merendua, bien artean logokoen zerbait baizik, bien lekua hartzen duena:

- (44) *kafesnea* eskatu dugu baina ez digute ateratzen

• Hirugarren zatimultzoko (40) adibideetan, ostera, ez daude bi izenak maila berean. *Atso sorgin* esaten dugunean, bistan da *atsoaz* ari garela hitz egiten, bi izenen artean ("atso" eta "sorgin"-en artean, alegia) hori baita garrantzizkoena, horrexek esaten baitigu zertaz ari garen. Bigarren

izenak ia ia izenondoaren balioa duela esan liteke (beste horrenbeste suertatzen da *erle langile*, *abade ehizari* eta horrelakoekin ere). Halako izen elkartuak izenondo bihurturiko izentzat ere jo izan dira autoreen artean:

- (45) denok dakigu *erle langileak* eta *erle alferrak* erlategi berean aurkitzen direla  
(46) Edume oso *emakume dantzari* ona dela aitortu behar da

• Laugarren zatimultzokoek (41) osatzen dute hitz elkartuen artean azpisailik ugariena. Beti bezala bi izen ditugu hor, baina oraingoan bigarren izena da garrantzizkoena, berak jasotzen baitu esanahi nagusia. Bigarren izen honi "mugakizun" deitzen diogu, lehenbizikoak mugatzen duelako, haren esanahi oinarritzkoa zehaztuz. Hori dela eta, lehenbiziko izena "mugatzaila" dela esan daiteke. "Ezpata kolpea" esaten dugunean kolpearen fiabarduraz ari gara, zertaz baliatu garen kolpea emateko, e.a. Esanahia nola aldatzen den berchala ikusten da bestelako adibideak erabiltzen ditugunean. Horrela, gauza bat da *behi esnea* (esneaz, esne motaz, ari gara) eta bestea, oso desberdina, *esne behia* (behiaz ari garelarik orain):

- (47) *zartagin kirtena* bi zati egin zitzaion ustektan

Lehen osagaiak edo morfemak bigarrena mugatzen badu ere, lehen osagaiak dakarren zehaztapen modua era desberdinetakoa izan daiteke. Horrela, azpimultzotxo honetan beste azpisailak egin ditzakegu, zeren zehaztapena ematen diguten kontuan harturik:

- denbora: *gau txori*, *gau lapur*, *egun argi*...
  - zertaz: *oilo salda*, *urte katea*, *ezpata kolpe*...
  - iturburua: *eper kanta*, *kandela argi*, *arto irin*...
  - helburua: *diru zorro*, *txori kaiola*, *terri bazka*...
  - zatia: *etxe ate*, *gaztaina adar*, *ogi paska*...
- e.a.

- (48) nekazariak egun argiarekin batera hasten dira beharlean  
 (49) gau lapurrak hautsi du kristala berriz ere  
 (50) taberna horretan oilo salda ematen dute  
 (51) taloak arto irinarekin egiten dira  
 (52) txori kaiolak ez dira oilaskoak sartzeko  
 (53) zakurrek hezur zatiak jaten dituzte

2.2.1.2. Izen elkartu arruntan artean badira beste izen batzuk aditzoinean edo izenkian oinarritzen direnak.

• Aditzoina+izenak osatzen dute ondoko izen hauek barneko egitura: *idazlan, borragoma, logela...*

- (54) *Idazlan* hau hiru aldiz aztertua izan da

Lehen osagaia aditzoina da eta oro har, bigarren osagaiak, mugakizunak, zertako balio duen, zertako erabiltzen den adierazten digu. Horrela, jakina, *borragoma*, "borratzeko goma" dela esanen dugu.

• Aditzoina+atzizkia eta izena dugu, berriz, honakoetan: *bilketa lan, alfabetatze ikastaro...* Izenkiak direla esaten dugu horregatik.

- (55) eskal idazle eta idazkien *bilketa lana* egin omen du Perak

• Izena+izenkia aurkitzen dugu beste batzuetan: *gatz emaile, kale garbitzaile, diru biltze, belar mozte, etxe aldaketa...*

- (56) *gatz emaile* horrek ez du ikasi oraino zenbat azukre behar duen arrosesneak  
 (57) *kale garbitzaileak* beranduraino ibiltzen dira hemen

Horrelako hitz elkartuetan bigarren osagaiak hartzen du atzizkia eta *biltze, mozte* edo *garbitzaile* osatu ondoren erabiltzen ditugu hauek izen

elkartua eraikitzeko. Izen hauek, beste hitzetan esanda, ez dira \*diru bildu, \*belar moztu edo \*kale garbiri bezalako aditzetatik sortu.

• Aditzoina eta partizipioa konbinatuz osatzen ditugun izen elkartuak ere baditugu: *sarraiera, harremanak, joanetorriak, joanjinak...* Aditzoina eta izenkiarekin ere berdin: *salerosketak...*

(58) nazionalista eta sozialisten arteko *harremanak* onak dira

2.2.1.3. Izen elkartu batzuk izena eta izenondoa justaposizioan jarriz sortzen ditugu: *udaberri, harriurdin, bihotzerre, gabonak, e.a.*

(59) *udaberrian* landareak loratzen hasten dira eta zuhaitzak, berriz, hostatzen

2.2.1.4. Bi izenondoz osaturikoak ere baditugu, elkarketa horrek izena ematen duelarik, ez izenondoa: *luze-laburra, hotz-beroa, e.a.*

2.2.2. Izen elkartu bereziak

• Izen berezia eta izen arrunta bata bestearen ondoren jarriz (izen berezi + izen arrunt) sortzen ditugu izen elkartu bereziak: *Peru Abarka, Patxiko Txerren, Pello Errota, Martin Kaiku, e.a.*

(60) *Peru Abarka* Mogelek idatzi zuen

Ikusten denez, *Peru Abarka* ez da "Peru" izena duen "abarka" bat, liburu baten izena baizik.

• Izen bereziaren ondoren izenondoa (izen berezi + izenondo) ere jar daiteke zenbait kasutan, izen berria sortuz horrela: *Lazkao Txiki, Katalingorri, Joxe Mari Potolo, e.a.* Egitura hauek aposizioak osatzen dituzte.

(61) *Jose Mari Potolok* prestatuko omen digu gaurko afaria

- Izen berezia izen arruntaren ondoan gertatzen da batzuetan (izen arrunt + izen berezi) : *Errege Dabid, Jondoni Paulo*, e.a. Aurrerago hitz eginen da honelaz.

- Izen berezi kopulatiboak ere badira euskaraz, bi izen berezi (izen berezi + izen berezi) elkarren segidan ematen ditugularik orduan: *Bilbo-Gasteizetan, Axular-Etxepareak*, e.a. Ikusten denez, *zeru-lurrak, aita-amak* eta horrelakoen parekoak dira.

### 2.2.3. Izen elkartuen idazkera

Euskaltzaindiak hitz elkartuak idazteko eman dituen gomendioen arloan zehazten da nola idatzi behar diren, besteak beste, izen elkartuak ere. Hona hemen, labur-laburrean gomendio horien bilduma.

#### 2.2.3.1. Izen elkartu batzuk bereiz idatzi behar dira:

- aposizioz osaturiko hitzak: *Bidasoa ibaia, Aralar mendia, Larramendi kalea, Arriaga antzokia, Axular liburutegia, Uztapide bertsolaria; izeba Maria, aitona Domingo, arreba Klara, maisu Juan; B ereduak, D dokumentua*, e.a.

- Lehen osagaia *erdal, euskal, giza, itsas* duten elkarte berriak: *erdal gramatika, erdal itzulpena, euskal olerkiak, euskal idazleak; giza zientziak, giza adimena; itsas garraioa, itsas ekologia* (forma zahar-ihartueta badira salbuespenak).

- Bukaceran >ia< duten hitzak lehen osagai edo mugatzaile gisa dihardutenetan, >a< hori kenduta nahiz kendu gabe erabili: *biologi azterketa, geologi irakaslea, pedagogi berrikuntza, ortografi arauak, edota biologia (-) azterketa, geologia (-) irakaslea, pedagogia (-)*

*berrikuntza, ortografia (-) arauak*, e.a. Hala ere, >a< kenduta erabiltzeari ematen zaio lehentasuna.

- Lehen osagaia *eliza, burdina, hizkuntza, kultura, natura* edo *literatura* hitza duen elkarteetan (eta sei hitz hauek dituzten elkarteetan bakarrik) *eliz, burdin, hizkuntz, kultur, natur, literatur* forma >a<-gabeak zein *eliza(-), burdina(-), hizkuntza(-), kultura(-), natura(-), literatura(-)* >a<-dunak berdin onargarri dira. Ongi emanak daude, beraz, bai *eliz agintaria, burdin fabrika, hizkuntz gaitasuna, kultur emankizuna, natur zientziak, literatur tradizioa* modukoak eta bai *eliza(-)zerga, burdina(-)saltzailea, hizkuntza(-)eskola, Kultura Saila, naturazalea, literatura(-)joera* gisakoak. Lehen osagaiari berezko >a< hori kentzen zaionean, marrarik ez erabili (edota loturik eman, bigarren osagaia erdi atzizki duten *burdingintza* modukoetan).

- Gainerako elkarte berri guztietan debeku da lehen osagaiaren amaierako >a< kentzea. Beraz *eskola(-)liburua, iraultza(-)giroa, jaiotza(-)kontrola, plangintza(-)arduraduna, fonetika(-)legea, gramatika(-)araua, kutsadura(-)arriskua, ohitura(-)aldaketa, Medikuntza Fakultatea, hezkuntza(-)alorra, finantza(-)egitura*,... idatz bedi, eta ez *eskol liburua, iraultz giroa, jaiotz kontrola, plangintz arduraduna, kutsadur arriskua, ohitur aldaketa, Medikuntz Fakultatea, hezkuntz alorra, finantz egitura*,...

#### 2.2.3.2. Beste izen elkarte batzuk marrarekin idatziko dira:

- *seme-alabak, zuri-gorri* moduko elkartek: *senar-emazteak, zeru-lurrak, galde-erantzunak, maisu-maistrak, izen-deiturak; txuri-urdin, gazi-geza, luze-zabal, argi-ilun; han-hemen, ezker-eskuin, harat-honat, lastan-musuka, negar-zotinka; sartu-irten, joan-etorri; hamar-hamaika (lagun), gutxi-aska.*

- *Ezkiio-Itsaso* moduko leku-izen elkarteak: *Abanto-Zierbena, Gernika-Lumo, Lasarte-Oria, Biurrun-Olkotz, Etxarri-Aranatz, Arratzu-*

*Ubarrendia, Iruraitz-Gauna, Ainhize-Monjolose, Ürrüxtoi-Larrabile. Besterik dira itzulpenezko Lizarra / Estella, Arrasate / Mondragón, Vitoria / Gasteiz,...* elkarteak.

2.2.3.3. Hirugarren multzo batek biltzen ditu loturik idaztekoak diren izen elkarteak:

- *jarleku* moduko elkarteak (aditz-erro + izen): *egongela, aldagela, abiaburu, helmuga, idazmakina, mintzapraktika, salneurri, irakasmaita; agerbide, eskabide, jokabide, komunikabide; agerraldi, egonaldi, emanaldi; galdegai, irakurgai, osagai; pausaleku, sorteku; biltoki, geltoki, erakustoki; jokamolde, pentsamolde; aztergune, lehiakide, sortialde, idazlan, ikerlan; ikasgela, ikastetxe.* Salbuespenetarako, ikus Euskaltzaindiaren gomendio liburuxka.

- Bigarren osagaia *-gin, -gile, -zain, -zale, -dun, -gabe* edota *-gintza, -za(i)ntza* duten elkarteak: *hargin, zurgin, uztargin; bertso-gile, eltzegile, langile; mugazain, diruzain, bidezain, atezain; bertsozale, haragizale, aurrerazale, neskazale; dirudun, arduradun, bizardun; lotsagabe, mugagabe, zentzugabe; gaztagintza, barkugintza, burdingintza; egurgite, etxegite, talogite; gaixozaintza, ertzaintza, liburuzaintza.*

- Bigarren osagaia *-aldi, -buru, -gizon, -(g)une, -(k)ide, -(k)ume, -orde* duten izen elkarteak: *agintealdi, belaunaldi; batzordeburu, sailburu; legegizon, elizgizon; argiune, zerbitzugune; baliokide, solaskide; kalekume, bulegokume; izenorde, sailburuorde.* Loturik idazten dira orobat bigarren osagaia *-gai* edo *-alde* duten hainbat elkarte: *abadegai, erregegai, aztigai* modukoak edota *industrialde, eskualde, lurralde, hegoalde, iparralde, ekialde* gisakoak.

- Lehen osagaia *aurre-, azpi-* eta *gain-* duten izen elkarteak: *aurrekontu, aurrelan, aurreproiektu; azpiegitura, azpimarra, azpimultzo; gainazal, gainbalio, gainkarga.*

- *Lauburu* moduko elkarteak (zenbatzaile + izen): *hiruadar*, *bostortz*, *hamalauzango*, *ehunzango*; *adarbakar*, *asmobakar*, *begibakar*, *zelulabakar*.

2.2.3.4. Bada beste sail handi bat murrarekin nahiz berex idatz daitezkeen izen elkarteak osatzen dutena:

- *Eguzki lore* moduko izen elkarte arruntak. Hemen sartzen dira, bereziki, hiztunak edo idazleak unean-unean eratzen dituen izen elkarte berri, bizi, ugariak: *akordeoi-soinu* edo *akordeoi soinu*, *lan-hitzarmen* edo *lan hitzarmen*, *batzorde-atal* edo *batzorde atal*, *arau-proposamen* edo *arau proposamen*, *merkatari-mundu* edo *merkatari mundu*, *gizarte-bizitza* edo *gizarte bizitza*, *arazo-iturri* edo *arazo iturri*, *sakontze-ikastaro* edo *sakontze ikastaro*, *osasun-egoera* edo *osasun egoera*, *elebitasun-formula* edo *elebitasun formula*, *garapen-maila* edo *garapen maila*, *ikastetxe-mota* edo *ikastetxe mota*, *eskabide-orri* edo *eskabide orri*. Kontuan izan hemen >a< bukaeraz esandakoa.

- *kale garbitzaile* eta *adar jotze* moduko elkarte sintetiko arruntak (bigarren osagaia aditz izenkia dute, eta lehena bigarrenaren osagarri zuzen). Hauek ere oso ugariak dira:

- egile elkarteak: *kale-garbitzaile* edo *kale garbitzaile*, *bide-urratzaile* edo *bide urratzaile*, *harri-jasotzaile* edo *harri jasotzaile*; *odol-emaille* edo *odol emaille*, *soinu-jole* edo *soinu jole*, *eguraldi-iragarle* edo *eguraldi iragarle*; *aho-gozagarri* edo *aho gozagarri*, *bihotz-hunkigarri* edo *bihotz hunkigarri*, *begi-mingarri* edo *begi mingarri*; *euri-neurgailu* edo *euri neurgailu*, *orri-zulagailu* edo *orri zulagailu*; *behar-gidari* edo *behor gidari*, *erbi-ehiztari* edo *erbi ehiztari*.

- ekintza elkarteak: *adar-jotze* edo *adar jotze*, *zikiro-jate* edo *zikiro jate*, *odol-isurtze* edo *odol isurtze*, *denbora-galtze* edo *denbora galtze*; *diru-bilketa* edo *diru bilketa*, *adimen-*



*azterketa* edo *adimen azterketa*; *txosten-prestaera* edo *txosten prestaera*, *hitz-osaera* edo *hitz osaera*; *fede-ukapen* edo *fede ukapen*, *lan-eskaintza* edo *lan eskaintza*.

Oharra: osagai biak letra larriz hasten direnean hobe da hitz elkartua marrarik gabe idaztea. Erronluetan, zenbait titulutan eta izendapenetan agertzen da hori batez ere: *Eusko Jaurlaritza*, *Foru Aldundia*, *Kultura eta Turismo Saila*, *Garraio Zuzendaritza*, *Kimika Fakultatea*, *Berisolari Txapelketa*, *Zinema Jaialdia*, *Ur Kirolak* eta abar.

### 2.3. Generoa euskaraz

Jakina denez, euskarak ez du generorik bereizten hitzetan. Horrela, esate baterako, zerbait *polit*a dela diogunean, berdin izan daiteke maskulinoa nola femeninoa. Sexua, ordea, bai, aditzean bereizten dugu hika ari garenean (hori izango litzateke genero gramatikala):

- (62) Ikusi duk hori? (*mutil bati* galdetzen badiogu)  
 (63) Ikusi dun hori? (*neska bati* galdetzen dioguncan)

Euskaraz, izen edo izenondo kontuetan, hiztegi mailako bereizketak bakarrik egiten ditugu, hortaz: *gizon* eta *emakume* bi izen desberdin dira eta bakoitzak esanahi desberdina du: *batak* arra den izaki bat aipatzen du, besteak emea dena. Baina honck ez dakar morfologian inolako bereizketarik.

Zenbait euskalkitan bereizten dira *lehengusu* eta *lehengusina*, edo *alargun* eta *alarguntsa*, baina horiek ere hiztegi mailako bereizketatzat jo behar dimgu, nahiz morfologia aldetik emankorragoak ditugun (*errient*, *errientsa*; *euskaldun*, *euskalduntsa*; *mediku*, *medikusa*, e.a. Erabilera hau oso mugatua dela dirudi: *alkatesa* hitza, esaterako, ez dago bildua *Orotariko Euskal Hiztegia*-n). Alde horretatik, hizkuntzan egiten diren bereizkuntzak, *tonto/tonta*, *katolikof/katolika* eta abarrek, erdaratik hartuak direnez, ez dute lekurik eta ezin dute euskara batuaren

gramatikaren bidea erakutsi. Aipa ditzagun, hala ere, *tontoa* (arra) eta *tuntuna* (emca) edo *gizajoa/gajoa* bezalako bikote batzuk aski hedatuak ditugulua gure artean. Jakina, adjektiboak ere *o-z* bukatu behar ditugu:

(64) perpaus *konpletiboak*

(65) emakume *kotolikoak*

Euskarak sexu desberdintasuna adierazteko bere-berea duen bidea besterik da, esan denez.

### 3. kapitulua:

## IZENORDAINAK

### 3.1. Pertsona izenordainak

#### 3.1.1. Pertsona izenordain arruntak

Izenordainak izentzat joko ditugu hemen, izen berezizat hain zuzen ere, ez baitute mugatzailerik onartzen eta berek bakarrik, laguntzarik gabe, osatzen baitute izen sintagma. Horrela, *ni*, *gu*, *edonor*, *norbait* eta horrelakoak (denak izenordainak) izen berezien toki berean agertzen zaizkigu. Izenordain hauekako batzuk *pertsona izenordainak* dira eta pertsona izenordainak direnen artean *arruntak* eta *indartuak* bereizten ditugu.

Pertsona izenordain arruntak honakook ditugu:

<i>Ni</i> :	1. pertsona sing.
<i>Hi</i> :	2. pertsona sing.
<i>Gu</i> :	1. pertsona pl.
<i>Zu</i> :	2. pertsona sing.

<i>Zuek</i> :	2. pertsona pl.
<i>Berari</i> :	2. pertsona sing.
<i>Beroriek</i> :	2. pertsona pl.

Jakina, eskema hau pixka bat argiago azaldu beharra da. Euskara zaharcan pertsona izenordainak honakook ziren:

<i>Ni</i>	1. pertsona sing.
<i>Hi</i>	2. pertsona sing.
<i>Gu</i>	1. pertsona pl.
<i>Zu</i>	2. pertsona pl.

Eta hau argi ikusten da aditzaren morfologian. Esate baterako, pluralaren marka *gu* eta *zu* pertsona izenordainekin bakarrik ageri da:

(1) Goizean ikusi <i>nauzue</i>	(ez, * <i>naituzue</i> )
(2) Goizean ikusi <i>haugu</i>	(ez, * <i>haitugu</i> )
(3) Goizean ikusi <i>gaituzu</i>	(ez, * <i>gauzu</i> )
(4) Goizean ikusi <i>zainugu</i>	(ez, * <i>zainugu</i> )

*Ni* pertsona izenordaina hiztunari dagokio eta *hi*, berriz, hiztunak bere aurrean duen entzuleari. *Gu* horrek *ni+beste norbait* adierazten du. Hasiera batean *zu* bigarren pertsona pluralari baldin bazegokion ere, gaur egun bigarren pertsona singularra adierazteko erabiltzen dugu. Horretara, bigarren pertsona singularrean bi izenordain aurkitzen ditugu: *hi* eta *zu*. *Hi*-ren erabilera lagunen artera, anai-arreben artera eta oro har konfidantza-tokietara mugatus da, euskalkien arabera desberdintasunak aurkitzen direlarik haren erabileran. Nolanahi ere, *hi* aukeratzen baldin badugu gure hizkeran, horrek forma alokutiboak dakartza berarekin eta adiz-joko hauek erabili behar ditugu nahitaez (Ikus, dena dela, alokutiboa aztertzen denean, 17. kapituluan, puntu honetaz esaten dena):

- (5) \*hiri deitu *diat* eta elkarrekin joango *gara*
- (6) hiri deitu *diat / dinat* eta elkarrekin joango *gaituk / gaitun*

Bigarren pertsona plurala adierazteko *zuek* erabiltzen dugu, *zu+beste norbait* adierazten duelarik horrek. Forma hau askoz ere berriagoa denez eta aditz morfologian berandu samar sartua, tauletan halako irregularitasun batzuk erakusten ditu.

*Berori* eta *beroriek* errespetuzko izenordain pertsonalak dira, gaur egun, beste pertsonekin erkatuz gero, baztertuxeak ditugunak. Forma aldetik hirugarren pertsonakoa da eta, hortaz, ez da pertsonala (*ber-aurizki* eta *hori* erakusleak osatua), baina erabilera bigarren pertsonari dagokio. Formaz hirugarrenekoa denez gero, aditzak ere horrelaxe egin behar du bere komunziadura:

(7) berorrek ikusiko *du*                      (ez, \*ikusiko *duzu*)

Eguneroko hizkuntza arrunterako agian balio ez duen forma dugu hau, baina hizkuntza-maila formalagoetan erabilgarri gerta dakiguke beharbada.

Eremu zabal batean *euok* erabiltzen da, *beroriek* horren ordeaz.

### 3.1.2. Pertsona izenordain indartuak

Pertsona izenordainek badituzte alboan bere forma indartuak ere, euskalkien arabera aski desberdinak direnak. Izenordain indartu hauekin bi arazo gertatzen zaizkigu:

- forma aldetik, esan bezala, desberdintasunak daudela euskalkien artean: euskalki batek *geu* aukeratzen duen bitartean ekialdeko euskaldunek nahiago dute *guhaur*.

- erabilera ere, erabilera desberdina suertatzen dela euskalki batetik bestera: argi dago mendebaleko *geu* delakoa ez dela ekialdeko *guhaur* izenordainaren parekoa.

Formarik erabilienak, bada, hauek ditugu:

1. pers. sing.: *neu, nihaur, nerau*  
1. pers. plur.: *geu, guhaur, gerok*  
2. pers. sing.: *heu, hihaur, herori*  
*zeu, zuhaur, zerori*  
2. pers. plur.: *zewek, zuihauk, zerok*

Oro har esan behar da mendebaleko euskaldunek joera handiagoa dutela ekialdekoek baino forma indartuak erabiltzeko. Hala ere, ez da gauza erraza zehaztea zein diren ingurune aproposak izenordain hauek hautatzeko.

S. Altubek, esate baterako, forma indartuak *galdegaiaren lekuan* erabiltzen ditugula zioen:

- (8) *zeuk* daukazu errua  
(9) ez da zer ekarri barberurik; *neu* naiz barberurik asko

Baina argi ikusten da, zemañi gisaz, galdegaiaren tokian indartuak ez diren formak erabiltzen aukera ere badugula:

- (10) *zuk* daukazu errua  
(11) *ni* naiz barberurik asko

Horixe da, gainera, ekialdeko euskaldunen joera, mendebalekoa bestelakoa baldin bada ere. Galdegaiarekin batera halako kontraktotasuna edo, ageri dela dirudi:

- (12) *zeuk* daukazu errua, eta ez beste inork  
(13) ez ekarri besterik, *neu* naiz aski eta

Galdegaia ez izan arren, *zenbait esapidetan* forma indartuak ikus daitezke, nahiz eta arruntak maizago ageri diren literatur tradizioan (Mixetenak, esaterako, beti forma arruntak erabiltzen ditu):

- (14) Hobeto egingo zenuke *zeuk ere* lo egingo bazenu
- (15) *neuk behintzat*, ez dut horrelakorik entzun
- (16) *ni neu*, ez nintzateke isililu horretan sartuko

Azkeneko izuli honetan kasu-marka bi izenordainek hartzen dute:

- (17) *nik neuk*, ez nioke ezer esango

Esan beharrik ez da esapide hauek direla jatorrak eta oraintsu sartuak ditugun "nik pertsonalki" eta horien antzeko irakeskeriak baino askoz ere gomendagarriagoak.

Forma hauek "gizonak berak" eta hauen antzekoen parekoak direla esan daiteke. Alegia, honako bi perpaus hauek zeharo parekoak dirudite:

- (18) *nik neuk* esango nioke
- (19) *haurrak berak* esango lioke

Ekialdeko euskalkietan izenordain indartu hauek badute beste balio bat ere. Alegia, "berak egin du" edo "nihaurk esan diot" diotenean, "berak eta berak bakarrik" edo "nik eta neuk bakarrik" esango balute bezala da.

• Aipatu diren kasu horietatik aparte, badirudi forma soilak erabil daitezkeela. Batzuetan, gainera, ez da beste biderik ere. Horrela, bokatiboetan, esate baterako, ez dute lekurik forma indartuek:

- (20) *zu*, adiskidea, zatoz hona

• Perpausa ezezkoa denean ere, badirudi ez dagoela izenordain indartuak erabilzeko joerarik (izenordain hori *ere*, *behintzat* eta horrelakoen laguntzan agertzen ez bada, gorago ikusi den bezala):

- (21) *ez zaitez nirekin haserre*

(22) *nik* ez nuke horrelakorik esango

- Zati galderetan normala da izenordain indarturik ez agertzea:

(23) *nor zara zu?*

- Galderazko perpausa bai-ez erakoa denean forma indartua ager daiteke:

(24) *zeuk* egin duzu ala besteri eman diozu egiteko?

- Azken ohar bat eginen dugu forma indartu hauen genitiboari dagokiona. Genitiboan balio bihurtaria eta indartua nahasi egiten zaizkigu:

(25) *ez duzu zerorren* iritzia azaltzen, besterena baizik

Nahasketa hau lehen eta bigarren pertsonarekin gertatzen da. Aldiz, *bera* erabiltzen baldin badugu, ekialdeko euskalkietan argi aski bereizten da orduan *beraren* (forma indartua) eta *bere-ren* (forma bihurtaria) artean, geroago ikusiko den moduan (are garbiago egiten da bereizketa *haren* eta *bere-ren* artean):

(26) \**nik bere* anaia ikusi dut (ezinezkoa, euskalki horietan)

(27) *nik beraren* anaia ikusi dut (indarra emateko edo, erabilia)

### 3.2. Izenordain zehaztugabeak

#### 3.2.1. *Nor* galdezaila

3.2.1.1. Izenordain zehaztugabeen artean *nor* galdezaila aipatu behar dugu lehen lehenik. Izenordain gisa agertzen da eta pertonez galdezako bakarrik balio dezake:



- (28) *nor* etorri da? (Andoni, Jone, e.a.)  
(29) *norekin* joango zara (Iagunekin, Mirenekin, e.a.)

Zenbait euskaldunek *nor* ez dute erabiltzen pertsona izenordain galdetzaile bezala eta horren ordez *zein*-ez baliatzen dira:

- (30) *zein* etorri da?

Euskalki haueetan, ikusten denez, *nor* eta *zein*-en arteko desberdintasunak ezabatu egin dira, bigarrenak lekua jan baitio lehenbizikoari. Erabilera hau gehienetan maila mintzatuan gertatzen da, *zein* esaten duen askok *nor* erabiltzen baitu idazteko orduan. Hobe litzateke, zernahi gisaz, biak gordetzea, bigarrenak balio estuagoa baitu, aukera bat edo adierazten digularik.

Batzuetan ez du galderazko balioa galdetzaile honek:

- (31) ni ez naiz *nor* hori egiteko  
(32) jendea, *nor* zaldiz, *nor* oinez, etxera itzuli zen

3.2.1.2. Pertsona ez direnez galdetzen duguncan, *zer* erabiltzen dugu:

- (33) *zer* erosiko duzu? (etxe bat erosiko dut)

Hala ere, bada funtsezko ezberdintasun bat *nor* eta *zer* galdetzaileen artean: normalean *zer* determinatzaile gisa erabiltzen ahal da izen batekin, *nor*-ekin gertatzen ez dena. Hori dela eta, zenbait gramatikarrik pentsatzen du *zer* hori ez dela izenordainen artean sartu behar. Beraz, *zer* (*ze* bezala ahoskatua) agertzen zaigunaldi bakoitzean izena isilean ematen dugula esatea zuzenago litzateke, hanen ustez:

- (34) *zer* ordu da?

*Zer* honck *notako* galdetzailearen balioa ere izan dezake sarritan:

(35) *zer* etxea erosi duzun!

Beste batzuetan, berriz, *komodin* gisa erabiltzen dugu, lagunarteko hizkeran batez ere, hitz bila edo, gabiltzanean:

(36) oso neska *zera* da

(37) *zera*..., hau esan zidan... hura hala *zeratu* zuenean

Bistan da hizkuntza idatzian *komodin* honek ez duela leku handiegirik, nahiz egun erregistro honetan ere hedatzen ari den. Literatur tradizioan *hau* da ageri dena horren ordean, eta 1930etik aurrera *honako hau*. Hortaz, baditu euskarak maila honetan baliabide jatorragoak segurki.

### 3.2.2. Galdetzailleetatik eratorritako izenordain zehaztugabeak

3.2.2.1. Hainbat izenordain sortzen zaizkigu galdetzailetarik, azpimarragarrienak honakook ditugularik. Alde batean dago, esaterako, *norbait*, pertsonekin erabiltzen duguna:

(38) *norbait* sartu da gelan

Normalean *norbait* beti izenordaina da, eta ez du ondoan izenik onartzen (*norbait izan* esapidea ere hor dugu, *nor izan* bezala). Honekin batera *zerbait* izenordaina aipatu behar dugu gauzez ari garenean:

(39) *zerbait* ikasi dut

Hala ere, *zerbait* izenordain hau determinatzaile gisa ere ageri da kasu batzuetan (oso erabilera markatua dugu hau eta ekialdean erabilia bereziki):

(40) matematika *zerbait* ikasia da hori

(41) *zerbait* matematika ere ikasi izan du

3.2.2.2. Bigarren multzoan ditugu *nor edo nor* eta *zer edo zer*, *norbait* eta *zerbait* adierazi nahi dutenak alegia (kasu honetan ordea *zer edo zer* beti izenordaina dugu, ezin baita horren ondoan izenik jarri):

(42) *nor edo nor* etorriko da

Idea bera adierazteko modu anitz ditugu euskaraz:

(43) *bat edo bat* etorriko da

(44) *baten bat* etorriko da

(45) *bat edoren bat* etorriko da

Egia esan, azkenekoak ez du inolako literatur tradizioarik eta testu dialektal modernoetan bakarrik ageri dira. Beste bietan bai, batez ere hegoaldean. Horrelakoetan, *baten bat* edo *bat edo bat* inongo izenik gabe agertzen zaizkigunez, izenordainizat hartuko ditugu.

3.2.2.3. Hurrengoak *edonor*, *nornahi*, *edozer* eta *zernahi* ditugu:

(46) *edonor* joan daiteke Donostia (= *nornahi*)

*Nornahi* honen deklinabide zaharra *nork nahi*, *nori nahi*, e.a. da. Gero eta gehiago hedatuz joan da, ekialdean nahiz mendebaldean, *nornahik*, *nornahiri*, e.a.

Ikusi dugun bezala, *zer*-en gainean eraikitzen ditugun izenordainak determinatzaile gisa ere agertzen ahal dira, izen sintagma mugatuz. Ber gauza suertatzen da hemen ere:

(47) *zernahi* gezur esan du horrek

(48) *edozer* gauza jaten du honek

Erabilera horiek aski mugatuak dira. *Zernahi* hori determinatzaile bezala ageri denean *anitz* edo halako zerbait adierazten du eta bizidunekin nahiz bizigabekoekin erabil daiteke, ergatiboa ere librok hartzen duela:

- (49) *zernahi jende bazen*  
(50) *zernahi jende ikusi omen dute*

*Edozer*-en kasuan, berriz, oso zalantzazko perpausak sortzen zaizkigu absolutu<sup>1</sup>boa ez den bestelako kasuak erabiltzeko orduan:

- (51) <sup>?</sup>*edozer jatekok tripako mina ematen dio*

Esan dezagun, horiaz, laburtuz, *zeren* gainean eraikitakoak, ikusi dugun *zer edo zer* eta ikusiko dugun *ezer* salbu, determinatzailetzat joko ditugula oro har.

3.2.2.4. Izenordain zehaztugabeak dira *inor* (edo *nehor*) eta *ezer* ere. Ezezko polarizatea dute eta *norbait* eta *zerbait*-ek ez bezalako distribuzioa erakusten digute (ezezkako, galderazko, baldintzazko eta konparaziozko testuinguruetan ageri dira). Funtsean, izen sintagma absolutu<sup>1</sup>boaren eta partitiboaren artean dagokeen diferentzia bera dago *norbait* eta *inor*, eta *zerbait* eta *ezer*-en artean. Esan nahi baita *inor* eta *ezer* partitiboa erabil daitezkeen testuinguru berean erabili ohi direla:

- (52) *jendea ikusi dut.*      *Norbait ikusi dut*  
(53) *etorri da jenderik?*      *Etorri da inor?*  
(54) *ez da jenderik etorri.*      *Ez da inor etorri*

Sarrarian, izenordain mugagabe hauek *ere* partikula nahi izaten dute:

- (55) *ez da inor ere etorri*

Hala ere, ohar batzuk egin beharrak dira hemen. Adibideetan ikusten denez, galderetan *inor* erabiltzen dela esan dugu, partitiboa erabiltzen den

moduan. Baina hori ez da beti hala. Esaterako, bi erabilera hauek guztiz arruntak ditugu:

(56) etorri da *inor*?

(57) etorri da *norbait*?

Esanahia, dena dela, ez da bietan parekoa, egoerari buruz dugun auresuposizioa desberdina baita aldi bakoitzean. Lehenbizikoan, hain zuzen, espero dugu ez dela inor ere etorri. Bigarrenean, berriz, norbait etorri dela pentsatzen dugu eta horregatik egiten dugu galdera.

Ezezkoetan ere berdintsu suertatzen da, esanahien desberdintasuna are garbiago geratzen zaigula:

(58) etxe honetan *inor* (ere) ez dago ongi (denak gaizki daude)

(59) etxe honetan *norbait* ez dago ongi (baten bat gaizki dago)

Hortaz, "zerbait ez dago ongi" eta "ezer ez dago ongi" ez dira batere baliokideak.

Hala ere, baiezka ematen ditugun perpausetan, zilegi izan ohi da izenordain zehaztugabe hauek ere erabiltzea, nahiz eta ohitura hau ez den hedatuegia:

(60) *inork* beti errua (=besteak beti errua)

(61) soinean dauzkazun prakak *inorenak* dituzu (beste norbaitenak)

Esanahi hori, batez ere bizkaieraz gertatzen da, gero beste euskalkietako idazle batzuek ere bereganatu duten arren (Miturcenenak berak, lekuko).

*Inoiz* adberbioarekin aise maizago gertatzen da hori:

(62) *inoiz* ikusi ditut horiek elkarrekin hizketan

Esan dezagun, azkenik, *ezer* honek baduela pareko bat, balio aldetik kidea duena: *deus*.

(63) ez dut *ezer* ere hartu

(64) ez dut *deus(ik)* ere hartu

Besalde, *batere* itzuliak ezezkako esanahia du:

(65) ez du *batere* ikusten

Besteekin ez bezala, ordea, adjektiboaren maila adierazteko ere erabil daiteke:

(66) lan hori ez da *batere* erraza

Hemen, dena dela, ondoko bereizketa hau ere egin beharko genuke, gauza bat baita *batere* eta bestea *bat ere*:

(67) ez du galdera *bat ere* asmatu

(68) haieiarik *batek ere* ez du erantzun

(69) ez du *bat ere* saldu

Adibide hauetan, jakina, "bat bakarrik ere" edo "batek bakarrik ere" edo halako zerbait dugu. Ondoko adibide honetan, ordea, ez. Hemen adberbioa da eta "deus", "ezer ere ez" edo halako zerbait adierazi nahi du:

(70) ez du *batere* sakdu

3.2.2.5. Galdetzaile hauek guztiak pluralean ere eman daitezke *-tzu* atzizkiak baliatuz, nahiz ohitura hau euskalki batzuetara bakarrik mugatua den:

(71) *zertzuk* esan dizkiote ?

Horrelako kasuetan komunizadura beti pluralean egin behar da (honek *batzuk* zenbatzailearen kasuan ere berdin berdin balio du). Pluralgilea galdetzaileari lot dakioko, hala nahi izanez gero, beharrezkoa ez bada ere, Gainera literatura tradizioan ere maiztasun mugatuagoa du *-tzu* horren erabilerak:

- (72) *zer* liburu erosi dituzu?  
 (73) *zertzu* liburu erosi dituzu?

Izenari ere atxikirik ematen dute hiztunek batzuetan (*Arantzazu*, *bitzu*, *hirutzu* eta halako hizteian gertatzen den moduan, baina erabilera hau hizkera batzuetara bakarrik mugatua da:

- (74) *zer* liburutzu erosi dituzu?

3.2.2.6. Esan dezagun, halaber, izenordain hauek *-tzu* atzizkiarekin ere ematen ditugula maiz aski, halakoetan *ere* behar dutelarik normalean:

- (75) inortzuk ere ez digu lagundu

3.2.2.7. *Nor* izenordainaz baliatuz osatzen ahal ditugu beste esapide hauek ere: *norbera* eta *nor bere*. Ikusten denez, lehenbizikoa *nor + berak* osatzen dute eta *bakoitza* esan nahi du. Ekialdean *batbedera* da honen baliokidea:

- (76) *norberak* egin dezala egin behar duena  
 (77) *bakoitzak* egin dezala egin behar duena  
 (78) *batbederak* egin dezala egin behar duena

Bestetik, *nor bere* dugu, *nor* izenordainak eta *bere* bihurkariak osatzen dutena. Hemen, jakina, *nor* ez da galdezailea, *bakoitza*-ren zentzukide den izenordain zehaztugabea baizik. Aldi berean, hauxe dugu *bere* bihurkariaren aurreko edo antezedentea, ondoko egitura paralelo hauetan ikusten denez:

(79) *Andoni bere* etxera joan zen

(80) *Nor bere* etxera joan zen (= *Bakoitza bere* etxera joan zen)

Kontura gaitezen, nolana ere, bi egitura horiek ez direla guztiz parekoak, *nor* eta *bere* nolabaitere elkarturik eman behar izaten baititugu:

(81) *bere* etxera joan zen *Andoni*

(82) \**bere* etxera joan zen *nor*

Kasu hauetan, *nor* aditz jokoan eragina duten izen sintagmei dagozkien kasuetan bakarrik joan daiteke:

(83) *nori berea* da zuzenbidea

(84) *nork bere* opilari ikatza

3.2.2.8. Aipa dezagun hemen izenordaintzat jo izan den hitz bat: *beste*. Hitz honek balio desberdinak har ditzake: batzuetan determinatzailearen balioa du eta izenordain gisa ere erabil daiteke:

(85) [*beste* etxe eder horretara] joango naiz (Det.)

(86) hori [*besteri*] eskatu (Izenord)

• Izenordainaren balioa duenean deklinabideko kasu batzuetan bakarrik joan daiteke. Horrela, ergatiboan eta datiboan agertzen ahal baldin bazaigu ere, nekez aurkituko dugu absolutiboan:

(87) berak egin nahi ez eta *besteri* agindu behar

(88) zuk zikitzen duzuna *bestek* garbitu beharko du

(89) hori *bestek* egin beza

Absolutiboan, berriz, "bat edo beste" esan behar dela dirudi.



Normalean, ordea, izenlagun gisa ageri zaigu, ondoko adibideok erakusten digutenez, izenlagunek duten distribuzio berbera duela gehienetan (ikus izenlagunen kapitulua):

- (90) *beste* gizon hori ez dut ezagutzen
- (91) *hemengo* gizon hori ez dut ezagutzen
- (92) *beste* nork galdetu zizun nitaz
- (93) *Bilboko* nork galdetu zizun nitaz?
- (94) *beste* sagarondoko bost txori
- (95) *aldapako* sagarondoko bost txori
- e.a.

• Azkenik, esan dezagun zenbait esapidetan ageri zaigula:

- (96) *zu ez beste* guztiak etorri ziren
- (97) *zutaz besterik* ez dut maite
- (98) *besteak beste*, hau azpimarratuko dut

### 3.3. Bihurkariak eta elkarkariak

#### 3.3.1. *X-en burua*

Perpaus baten barnean bi izen sintagma erreferentziakideak direnean (hau da, izen bera aipatzen duten bi izen sintagma ditugunean) bigarren izen sintagmak izenordain bihurkariaren forma hartzen du:

- (99) gizon hark *bere burua* hil nahi zuen
- (100) kontu egin ezazu *zewre buruaz*, gizona!

Ikusten denez, egitura haiek osatzeko (aurreko bat eta *X-en burua*) *burua* izena izenlagun bihurkari bati erasten diogu. Normalean singularrean baldin badao ere (nahiz aurrekoa plurala izan), zilegi da pluralaz jartzea eta horrelako kasuak literaturan aurkitzen ditugu:

(101) *zeuen buruen etsaiak zarre zuek*

Gaur egun bada joera bat, hala ere, bihurtari hau baztertzekoa. Hori dela eta, zenbait hiztunek nahiago izaten du (103) esan (102) baino:

(102) *neure burua ikusten dut goizero ispiluan*  
(103) *egunero ikusten naiz ispiluan*

Esanahiaren aldetik badirudi nahiko kideak ditugula bi perpaus horiek. Dena dela, hori ezin da beti egin, gauza bat baita "gizon horrek bere burua hil du" eta bestea "gizon hori hil da". Aditzez aditz ikusi behar, horregatik, zer gertatzen den eta noiz aldatzen den esanahia.

### 3.3.2. *Elkar*

*Elkar* izenordaina elkarkari edo erreziprokoa dugu. Berak bakarrik osa dezake sintagma, inolako laguntzarik gabe, izen berezia balitz bezala. Izen sintagma osatzen duenez, kasu markak ere har ditzake (ergatiboa salbu, beti ere perpaus egituran "gorago" dagoen aurreko bat behar baitu eta ergatiboa baino aurrerago dagoenik ez baita ezer):

(104) *haur horiek elkar maite dute*  
(105) *lagun hauek elkarrez baliatu dira lana egiteko*

Esanahia aurreko antezedente horrek ematen dio adibideetan. Itxura edo formaz *elkar* singularra baldin bada ere (aditzarekin egiten duen komunizadura singularrean doa), esanahiaz plurala da beti, aurrekoa plurala baitu, edo izen juntatua bestela:

(106) *ume horiek elkarrekin jostaniko dira*  
(107) *Andoni eta Miren elkarren ondoan jarri dira*

Ikusten denez, genitiboan ere ageri da, "ondoan", "gainean", "inguruan" eta horrelako posposizioekin batera. Posposizioa izan

beharrean izen arrunta baldin bada, ordea, badirudi nahiago izaten dugula "batak bestea" edo halako zerbait erabili:

(108) Peruk eta Mirenek batak bestearen etxea erre dute

Izen sintagma denez, izen sintagmaren funtzioak hartzen ditu perpausaren barnean:

(109) Andonirekin bazkalduko dugu

(110) *elkarrekin* bazkalduko dugu

Esan behar da hemen gaur egun entzuten diren "\*elkar joango gara" edo "\*elkarrik bazkalduko dugu" eta horiek bezalakoak guztiz berriak direla eta bide okerrekoak gainera.

Esan dezagun, zernahi gisaz, *elkar* ageri zaigun guztietan *bata bestea* itzulia ere erabil daitekeela:

(111) Bi oilarrek *elkar* hil zuten = Bi oilarrek *bata bestea* hil zuten

Zernahi gisaz, *X-en burua* bihurtzeko gertatzen denaren pareko zerbait aurkitzen dugu hemen ere:

(112) guk *elkar* ikusiko dugu gero

Honen ordez, beste hau esateko joera handia baitago, nahiz bien artean lehenbizikoari eman behar zaion lehentasuna:

(113) gero ikusiko gara

Kontua da, alabaina, aldaketa hori ezin dugula beti egin. Esate baterako, (114) eta (115) ez dira berdinak esanahiaz:

(114) *elkar* hilko dugu gero

(115) gero hilko gara

Berdin beste bi hauek ere:

(116) *elkar* jantziko dugu gela horretan

(117) gela horretan jantziko gara

Beti bezala, aditzez aditz aztertu behar da arazo hau, eta zeinek onartzen duten aldaketa eta zeinek ez, ikusi.

### 3.3.3. *Neure, heure*, forma bihurkariak

#### 3.3.3.1. Ikus ditzagun honako forma hauek:

1	2	3
ni	neu	neure
hi	heu heure	
gu	geu	geure
e.a.		

Lehenbiziko zutabeen jarri ditugu izenordain arrunt batzuk. Bigarren zutabeen daude izenordain hauen forma indartuak, eta hirugarrenean, izenordainen genitibo bihurkaria.

3.3.3.2. Noiz erabiltzen dira genitibo bihurkariak? Lege zorrotzik ez dagoen arren, hona hemen zein den eman ohi den araua:

Erabil bedi genitibo bihurkaria baldin eta izenordain horrek aurrekaria badu perpaua bereko beste *nor*, *nori* edo *norik* sintagma batean

Sintagma hauek, aditza jokatur bada aditzean ageriko dira eta, orduan, aditzari begiratzea komeni da sintagma horiek ageri diren ala ez jakiteko:

- (118) ni *neure* etxera joango naiz
- (119) nik *neure* lanak egingo diut
- (120) *neure* etxea erre ditzut

Perpausaren aditza jokatu gabea denean ere, forma bihurkariak erabil daitezke, perpaus txertamaren subjektua, ondoko adibidean gertatzen den bezala, identifikagarria baldin bada behintzat:

- (121) nik badakit *neure* etxera joaten

Hurrengo adibidean, ordea, genitibo bihurkariak ez du lekurik, honek aipatzen duen pertsona ez baita aditzean ageri (aditza 1. pertsona plurala da eta genitibo bihurkaria 1. pertsona singularrari dagokio):

- (122) [ni eta *nire* lagunak] ez gara ongi konpontzen

Definizioaren arabera, kontura gaitzen *nire* genitiboak ez duela 1. pertsona singularreko sintagmarik perpauscan (*gu* da hor duguna, ez *ni*). Horregatik ez da bihurkaria erabiltzen hor.

3.3.3.3. Hori dela eta, "Andoni *nire* etxera (eta ez *\*neure* etxera) etorri da lo egitera", baina "Andoni *neure* etxera etorri zait lo egitera). Aniza denez, honek badu galdegaiarekin ere zerikusi zerbait:

- (123) nik, *neure* etxean agintzen dut
- (124) *nire* etxean, neuk agintzen dut

Forma bihurkariak anaforikoak direnez, aurreko erreferente bat behar dute. Aurreko erreferente horrek mintzagai hanpauaren tokia hartzen duenean, bide ematen du galdegaigunean genitibo bihurkaria jartzeko.

3.3.3.4. Orain arte ikusi ditugun kasuetan zehaztu dugu, hain zuzen ere, zer baldintza bete behar diren bihurtari hauek erabiltzeko, baina horrek ez du esan nahi nahitanahiez erabiliko ditugunik, bihurtari ez diren forma arruntak ere lasai aski erabil baititzakegu hor:

- (125) nik *nire* lanak egingo ditut
- (126) nik badakit *nire* etxera joaten
- (127) *zure* etxea erre dizut

3.3.3.5. Hirugarren pertsonari dagokionez, gauzak ez dira berdin berdinak: *neure*, *heure* eta gainerako bihurtariak ager dsitezkeen tokietan *bere* aurkitzen dugu orain:

- (128) Miren *bere* etxera joan da                    (Mirenen etxera, alegia)
- (129) Miren *haren* etxera joan da                (beste norbaiten etxera)

Badirudi *bere* honek gorago jarri dugun (3.3.3.2) baldintza hori itxi itxian segitzen duela:

- (130) Andoni *bere* etxera eramán nuen
- (131) Andonik *bere* etxera eramán ninduen
- (132) Andoniri *bere* etxea erosi nion

Arau hori kontuan hartzen badugu, ondoko erabilera hauek lirateko zuzenak:

- (133) Itziar eta *haren* lagunak etxeri zaizkigu etxera
- (134) Peru Arrieta ezagutu? Sarritan izan naiz *haren* etxean

Kontua da, ordea, euskaldun anitzek *bere* hau beste era batez ere erabiltzen duela eta ez bihurtari soil gisa.

Mendebaleko euskalkietan honako perpausak guztiz normalak eta hedatnak ditugu:

- (135) Itziar eta *bere* lagunak etorri zaizkigu etxera  
 (136) Peru Arrieta ezagutu? Sarritan izan naiz *bere* etxean

Esan daiteke, hortaz, bi *bere* ditugula: bata, bihurtaria eta beraz aurreko aditzaren partaide izatea eskatzen duena; eta bestea, *beraren*-en ordez edo, erabiltzen duguna: hitz batean esateko, *bere* eta *beraren* bata bestearen ordez erabiltzen dituzte hiztun askok. Horrenbestez, *bere* aukeratzen baldin badugu *beraren*-en esanahiarekin, aurrekoa ez da nahitaez perpausean agertuko eta aditzaren partaide izango. Aski da lehenago noizbait aipatua izatea, pepaus beran ez bada ere (aipatu dezagun hemen, bide batez, *beraien* eta halako formak ikaragarri ugaltu direla azken aldian, oso tradizio eskasekoak direnak).

Zenbait hiztun harago joan dira eta hain dituzte bi hauek (*bere* eta *beraren*) haliokidetzat jotzen, non *beran* edo halakoak ere esaten dituzten *bere* honen ordez, alderantzizko bidea eginez oraingoan: goiko kasuetan *bere*-k hartzen badu *beraren*-en lekua, oraingoan *beraren* honek (*beran* ahoskatua) hartzen du *bere*-ren tokia (*Mikel joan da beran etxera*).

Nolanahi ere, argi dago gaur egun *bere* honen gehiegikeria bat suertatzen dela hiztun askoren artean. *Hura* arruntaren ordez *bera* erabiltzeko joera dagoen bezala, batzuek *haren* arruntaren ordez *bere* erabiltzen dute eguneroko hizkeran, gehienetan bihurtaria edo indartua izan gabe.

Esan den moduan *neure*, *zeure* eta *bere* pare-parekoak ditugu, azkeneko honek beti beti balio bihurtzailea ez duen arren. Besteak ere erabili izan dira inoiz izenordain indartuak (eta ez bihurtariak) bezala:

- (137) *Neure* izena gora eta behera erabili izan denez gero...

Hortaz, oso zail dela dirudi lege zorrotz eta salbuespenik gabeak ematea, forma lauek, izan ere, bikoitzak direlako: bihurtariak eta indartuak.

Esan dezagun, zernahi dela ere, genitiboaz esan dugun honek guztiak genitiboarekin zerikusia duten formetarako ere balio duela: *enegan/neuregan, zurekin/zeurekin, e.a.*

### 3.3.4. *Bera*, izenordaina (*hura, berau, berori*)

*EGLU* liburukielan *bera* determinatzaile gisa ageri da, determinatzaile indartu gisa alegia (ikus determinatzaileak), batzuetan aposizioan ageri delarik:

(138) *andre bera etorri da*

(139) *andrea bera etorria da*

Alde batera utziko dugu hemen eta oraingoz egitura horien analisia. Hain zuzen ere, *bera* hori -aposizioan joan ala ez- ez baita seguraski ere determinatzailea, adjektiboa edo halako zerbait baizik. Geroago itzuliko gara puntu honetara, 5.3. atalean.

Kasu horiek albora utzirik, besteetan izenordain bezala ageri zaigu, ez baitu alboan izenik onartzen eta berak bakarrik osatzen baitu izen sintagma:

(140) *Peruk esan digu berak egingo duela*

Edozein euskaldunek daki hor *bera* horrek erreferentzia askea duela: lehendik aipatu den norbait izan daiteke edo "Peru" *bera* ere, beste interpretazio batean. Izena jartzen badiogu ondoan, ordea, lehenbiziko interpretazioa besterik ez du, hau da, ezin da inola ere "Peru" izan:

(141) *Peruk esan digu gizon berak egingo duela*

Hor ikusten da garbi aski bi *bera* diferente ditugula, batean izenordainaren funtzioa duelarik.



Ekialdeko euskalkietan gauza berbera gertatzen da *hura*-rekin ere. Berez determinatzailetzat hartzen den hitz hau izenordain hutsa da anitzetan:

(142) Peruk esan digu *hark* egingo duela

Eta *hark* hori edozein izan daiteke, "Peru" ere. Alderantziz, mendebaleko hizkeretan beti determinatzailea denez, ezin du "Peru"ren erreferentzia hartu. Mendebalean determinatzaile hutsa dena, ekialdean izenordaina ere izan daiteke.

*Berau* eta *berori* ere gehienetan izenordain gisa erabiltzen dira, bai literatur tradizioan eta bai hizketa bizian. Hala ere, determinatzaile bezala ere ageri dira noizbehinka, izen baten ondoan. Literatur tradizioan, halako adibideak ez dira falta bi muturreko euskalkietan, bizkaieraz eta zubereraz, alegia:

(143) hiri *berau* erreko dute

(144) asmo *berauxe* beste modu batera azalduko dizut

### 3.4. Ezabaketa

• Izenordainen sailean ez ditugu sartu ohizko gramatiketan izenordaintzat hartu izan diren zenbait elementu. Lehenbiziko eta bigarren pertsona izenordainak aipatu ditugu eta, hirugarrenean, *bera* izenordaina (nahiz batzutan determinatzailea besterik ez den). Ondoko esaldiak bezalakoak entzuten ditugunean, orduan, nola aztertu behar ditugu?

(145) *hau* ez dut batere gogoko

Hor agertzen den *hau* hori ez ote da izenordaina? Gure ustez, ez. Hor gertatu dena da, testuingurua aski adierazgarria denez edo, izena isilean utzi dugula:

(146) *liburu hau ez dut batera gogoko*

Ezabatze hori posible izaten da denok ulertzen duguncan zein den azpian dagoen izena, nahiz eta axalean agertu ez. Izena ezabatu ondoren, jakina, erakuslea bakarrik geratzen da, baina horrek ez du esan nahi berez erakusle hori izenordain denik. Determinatzaile guztiakin gertatzen zaigu hau.

• Bada euskaraz beste ezabatze fenomeno bat ere: aditzean islada duten *nor*, *nori* eta *nork* sintagmak ezaba daitezke. Esaterako,

(147) *nik zuri liburua eskatu dizut*

Arazorik gabe ken daitezke hortik *nik* eta *zuri* izenordainak. Baina testuingurua aski aberatsa baldin bada, *liburua* izen sintagma ere ezabatzeko aukera dugu:

(148) *eskatu dizut*

Ezabaketa hau ezin da egin, ordea, ezabatu nahi ditugun sintagmak mintzagai hanpatua edo galdegaia direnean, hitz ordenari buruz mintzatu garenean esan dugun moduan:

(149) *gu*, garen txarreanean, *gu* gelditzen gara

Lehenbiziko *gu* hori mintzagai hanpatua da, eta galdegaia, berriz, bigarrena.

• Bada beste ezabaketa mota bat ere: perpauslean lehen pertsona singularrekin edo bigarren pertsona singularrekin beste norbait ere agertzen bada, beste itzuli hau erabiltzen dugu:

(150) *zu eta biok joango gara*                      (*zu eta ni*)  
(151) *zu eta hirurok joango gara*                    (*Peru, zu eta ni*)

Ez dezagun ahantz, zernahi gisaz, *zu eta biok* bezalako esapideak oso jatorrak izanik, *zu eta ni* bezalakoak ere hizkuntzaren literatur tradizioan ongi enborturak daudela: gramatikaren batean txartzat jo izan diren arren, maizago ageri dira bigarren horiek, lehenengoa mendebalera bakarrik mugatua baita. Hala ere, azken honek (*zu eta biok* bezalako esapideek esan nahi da) leku handia du mintzo bizian.

• Zenbait kasutan, azkenik, izen sintagma bati dagokion izenlaguna ez da agertzen nahiz eta denok ulertzen dugun hor badela izenlagun bat:

(152) *etxera noa*

(*nire* *etxera noa*)

(153) *amak eman zidan*

(*nire* *amak eman zidan*)

Beste batzuetan, hala ere, izen hori jarzea komeni zaigu. Euskaldun jatorra, bere familiaz edo etxeaz ari delarik, plurala erabiltzearen aldekoa da: *gure aita*, *gure andrea*, e.a., *nire aita*, *nire andrea*, e.a. esan beharrean.

**4. kapitulua:**

**DETERMINATZAILEAK**

Izen sintagmaren ardatza izen arrunt batek osatzen duenean, normalean determinatzailearen bat hartu behar du. Determinatzaile hauek era askotakoak izan daitezkeenez, sail desberdin batzuk bereziko ditugu. Horrela, hona hemen proposatzen dugun sailkapen mota bat:

- 1. Mugatzaileak: artikulua eta erakusleak*
- 2. Zenbatzaileak: zehaztuak, zehaztugabeak eta orokorrak*
- 3. Determinatzaile zehaztugabeak*

Eta adibideak eman nahi izanez gero:

- |                         |                                 |
|-------------------------|---------------------------------|
| (1) <i>etxe-a</i>       | (artikulua)                     |
| (2) <i>etxe hau</i>     | (erakuslea)                     |
| (3) <i>best etxe</i>    | (zenb. zehaztua)                |
| (4) <i>etxe asko</i>    | (zenb. zehaztugabea)            |
| (5) <i>etxe guztiak</i> | (zenb. orokorra)                |
| (6) <i>edozein etxe</i> | (determinatzaile zehaztugabeak) |

Ondoren ikusiko ditugu, hortaz, guztiok banan-banan.

#### **4.1. Mugatzaileak**

##### **4.1.1. Artikulua**

Egia esan, goraxeago izen arruntek osatutako izen sintagmek determinatzailea behar dutela esan dugun arren, ez da batera gauza erraza noiz eta nola jarri behar diren determinatzaile hauek zehaztea. Artikuluaren kasuan, esate baterako, errazago da esatea noiz ez den erabili behar, noiz ez duen lekurik. Bestelakoetan, normalean, artikulua jarri beharko dugu.

• Izen sintagma izen bereziak edo izenordainak osatzen duenean ez da artikulua jarri behar (salbuespenak salbu):

- (7) *Jone ikusi dut*
- (8) *zuk eginen duzu*

• Partitiboak eta *-en bat* delakoaz osaturiko izen sintagmetan ezin da artikulurik jarri:

- (9) *ez dute sagarrrik saltzen*
- (10) *libururen bat irakurriko beharko duzu noizbait*

- Predikatu osagarri askok ez du artikulurik behar:

(11) semea *artzain* bidali zuten Ameriketara

• Izen sintagman zenbatzaile bat ageri denean eta adberbio kutsua duten sintagmetan (batez ere kanlitatea eta neurria adierazteko erabiltzen ditugun horietan) ez da artikulurik erabiltzen:

(12) *gizon askok* hartu zuen parte biltzarrean

(13) *bost kilo sagar* erosteko esan didate

• Inesiboa eta instrumentala askotan artikulurik gabe ageri dira. Hau ez da, hala ere, beharrezkoa, euskalkien arabera desberdintasun argiak daudelako (*suari/suari*; *urean/uretan*, e.a.):

(14) *elurretan/elurrean* ibili gara

(15) *oinex* etorri da

Hemen aipatutako egiturez kanpo, izen sintagma mugatzailea edo erakuslea eraman beharko du, mugatzaile horrek izen sintagma osoa, eta ez izen sintagmaren halako edo horrelako osagaia, mugatzen duelarik. Horrela, orain arte esandakoak kontuan hartuz, izen sintagmek itxura desberdinak erakusten dizkigute: batzuek mugatzailea dute, beste batzuek ez. Gainera, izen sintagma osatzerakoan [ $\pm$ mugatzailea] tasunaz gainera, [ $\pm$ plurala] tasuna ere beharrezkoa dugu:

(16) *etxeak* (+mug, +plur)

(17) *etxea* (+mug, -plur)

(18) *bost etxe* (-mug, +plur)

(19) *Koldo* (-mug, -plur)

Determinatzailea zenbatzailea denean (*bost etxe* bezalako izen sintagmetan gertatzen dena), mendebaleko euskaldunek izen sintagma horren eta aditzaren arteko komunizadura pluralean egiten dute (*bost etxe*

*ikusi ditugu*). Ekialdekoek ere gehienetan joera bera dute, nahiz, literatur tradizioan, Intxauspek eta Zuberoako zenbait idazle modernok singularrean egiten duten komuntadura (*bost etxe ikusi dirugu / dugu*).

• Aipa dezagun, azkenik *-ak* formarekin batera *-ok* ere badugula mendebaleko euskarari mugatzaile hurbila deitzen duguna, entzulearen hurbiltasuna markatzeko erabilia. Egun, pluralarekin bakarrik gertatzen da hau, ez singulararekin, nahiz hor ditugun *goizean, aspaldion, momentuan arestion*, e.a. bezalako itzuliak.

#### 4.1.2. Erakusleak

##### 4.1.2.1. Funtzioa eta forma

• Erakusleen funtzioa, izenak berak adierazten digun moduan, erakustea da, seinatzea alegia. Erakusle hauek hiru dira euskaraz: *hau, hori, hura* eta hauen pluralak, *hauek, horiek, haiek*. Hortaz, seinatze horretan hiru gradu bereizten dira, bai espazioan, bai denboran:

(20) etxe *honetan*

(21) urte *hartan*

Gradu hauek balio nozionala ere badute, leku denboratik at dagoena eta batez ere kontaktetan edo elkarrizketan erabiltzen dena:

(22) behin batean herri batean neska txiki bat bizi zen. Neska *honek*...

Erakusleen lekua, izen sintagmaren barnean, azken muturra da, artikulua bera alegia:

(23) atzo kontatu nizuen ipuin polit *hura*

• Erakusleek forma desberdinak hartzen ahal dituzte. Batetik, absolutiboan salbu, gainerako kasu hauetan guztietan agertzen diren erroan *hon-*, *hor* eta *-ha(r)* dira. Bestetik, erakusleetatik hainbat adberbio diferente sortzen ahal zaizkigu. Batzuek balio erakuslea dute, lekuzkoak esatezako (zenbaitetan aurkezpen balioa ere dutenak): *hemen*, *hor*, *han*; *hona*, *horra*, *kara*; *hona hemen*, *horra hor*, *kara han*.

(24) *hemen* dago zuk eskatutakoa

(25) *horra!* *horra!* gure Oientzeru...

Modua adierazten duten adberbioak ere baditugu: *honela*, *horrela*, *hala*.

(26) *honela* egiteko esan digute baina ez dugu kasurik egin

Zenbatzaile mugagabetzat hartzen dira beste adberbio batzuk: *honenbeste*, *horrenbeste*, *hainbeste*.

(27) *honenbeste* balio duela aipatu duenean...

Hauen pareko ditugu, ikusten denez, adjektiboaren maila graduatzeko erabiltzen direnak: *honen*, *horren*, *hain*

(28) ez nuen uste *honen* eskuzabala nintzenik

Erakusleetatik sortzen diren adberbioez baliaturik zenbait esapide sortzeko ere aukera badugu: *hortaz* (lokailua, *horretaz* hitzetik bereizi behar dene), *hala hala*, *nola hala*, *hala nola* (bere bi balioekin: *bezala* eta *adibidez*), *hau duk hau!*, *hau duk beroa*, *hura zen gizona hura*, (harridura perpausak), e.a.



#### 4.1.2.2. Erakusle indartuak

• Ikusi ditugun guztiok erakusle arruntak ditugu. Erakusle arrunt hauek badituzte, hala ere, forma indartuak ere parean. Jakina denez, erakusleak indartzeko *-xe* atzizkia eranstean zaito erakusle arruntari. *EGLU-I* liburuan *ber-* aurrizkiaz ere hitz egiten zen, aurrizki honetaz baliatuz determinatzaile indartuak sortzen ditugula adieraziz (etxe *berau*, andre *bera*, e.a.). Badirudi, hala ere, sintagma hauek beste era batera aztertu behar direla. Berehala itzuliko gara kontu honetara.

• Esan dezagun, hasteko *-xe* atzizkia anitzetan esapide fosilduetan edo ikus daitekeela:

(29) bai *horixe!*

Horrela osatutako erakusle indartuak ez dira, haatik, homogeneoak euskalki guztietan. Absolutiboan, ergatiboan eta genitiboan denok berdín erabiltzen ditugu forma hauek:

(30)    hauxe        horixe        huraxe  
         honexek    horrexek    hurrexek  
         honexen    horrexen    hurrexen

Beste kasuetara pasatzen garenean, hain erabiliak ez izateaz gain, desberdintasunak sortzen dira hizkera batetik bestera. Horrela, hiztun batzuek *-xe* atzizkia erakuslearen erroaren ondotik jartzen dute, kasu markaren aurrean:

(31) honexeri    horrexeri    hurrexeri

Beste hiztun batzuek nahiago dute, ordea, azkenean jarri atzizkia:

(32) honixe        horixe        harixe

Eta gauza bertsua gertatzen da kasu hauekin guztiekin (batzuekin ezinezkoa den arren): *honexetan / honetantxe; honexekin / honekintxe; honexetara / honetaraxe*, e.a. Erakusleetatik sortzen diren adberbioekin ere ber gauza: *hementzetik / hemendixe; honelakoxe / honelaxeko*, e.a.

• Zer gertatzen da, ordea, *etxe bera* eta horrelako sintagmekin? Lehenago esan den moduan, *bera*, *berori* eta *berau* izenordainen funtzioa izan dezakete testuinguru batzuetan (ikus *Izenordainak* doituriko kapitulua). Izenordainaren funtzioa ez dutenean, horrelako testuinguruetan agertzen zaizkigu (literatura tradizioan halako ehundaka daude: *ber gizona* bezalakoak edo mendeko perpauzetan ageri diren *ikusten duzun ber* gisakoak, gainera, bizi-bizirik daude ekialdeko euskalkietan. Zer esanik ez, *etxe berau*, *etxe berbera* eta *arazo bertsu* bezalakoak oso arruntak ditugu):

- (33) *etxe berau*
- (34) *ber gizona*
- (35) *etxe berbera*
- (36) *arazo bertsua* (gaur *egunberetsu* bezala hedatua)
- (37) *gauza ber bat*
- (38) Jainko bat *ber* hau
- (39) ala juduen *ber* da Jainkoa?

Ikusten den moduan, testuinguru anitzetan agertzen ahal zaigu *ber* delako elementu hau, aski autonomia handia erakutsiz. Azkeneko adibidean, esate baterako, aditzondoa da (*bakarrik* esan nahi du). Beste guztietan adjektiboaren funtzioa duela dirudi, *-a* artikulua bakarrik izango litzatekeelarik hor determinatzailea (determinatzaile arrunta, jakina). Eta *-a* bezala, *-au* eta *-ori* ere, berez erakusle indartuak direnak (*ber* elementuari loturik idazten ditugunak). Hau guztia dela eta, adjektiboan sailcan aztertuko da xehekiago *ber* elementua.

## 4.2. Zenbatzaileak

Zenbatzaileak izan daitezke *zehaztuak*, *zehaztugabeak* eta *orokorrak*. Zenbatzaileek osatzen dituzten sintagmak, bestetik, mugatuak edo mugagabeak izan daitezke. Horrela, zenbatzaile zehaztuak sintagma mugagabea (*bost etxe*) nahiz sintagma mugatua (*bost etxeak*) ageriko dira. Zenbatzaile zehaztugabeek sintagma mugagabea nahi dute beti (*zenbait zaldi*) eta zenbatzaile orokorrek, azkenik, mugatzaile singularra (*dena*) edo mugatzaile + plurala eskatzen dute (*guztiak*).

### 4.2.1. Zenbatzaile zehaztuak

• Zenbatzaile zehaztuak, normalcan, izen sintagmaren ezker aldean ageri dira. Salbuespen bakarra *bat* da, eta zenbait euskalkitan, *bi* ere, hauek eskubiko partean agertzen direlarik:

(40) *etxe bat*

(41) *etxe bi*

(42) *bi etxe*

Eta hemendik aurrera beti ezkerrean:

(43) *hogei etxe*

(44) *berrogeitabi zaldi*

e.a.

• Hauek ditugu zenbatzaile zehaztuak euskaraz:

0	zero, huts
1	bat
2	bi
3	hiru
4	lau
5	bost (bortz)

6	sei
7	zazpi
8	zortzi
9	bederatzi
10	hamar
11	hamaika
12	hamabi
13	hamahiru
14	hamalau
15	hamabost (hamabortz)
16	hamasei
17	hamazazpi
18	hemezortzi (hamazortzi)
19	hemeretzi
20	hogei
21	hogeita bat
22	hogeita bi
23	hogeita hiru
24	hogeita lau
25	hogeita bost (hogeita bortz)
26	hogeita sei
27	hogeita zazpi
28	hogeita zortzi
29	hogeita bederatzi
30	hogeita hamar
31	hogeita hamaika
32	hogeita hamabi
33	hogeita hamahiru
34	hogeita hamalau
35	hogeita hamabost (hogeita hamabortz)
36	hogeita hamasei
37	hogeita hamazazpi
38	hogeita hemezortzi (hogeita hamazortzi)
39	hogeita hemeretzi

40	berrogei
41	berrogeita bat
42	berrogeita bi
43	berrogeita hiru
44	berrogeita lau
45	berrogeita bost (berrogeita bortz)
46	berrogeita sei
47	berrogeita zazpi
48	berrogeita zortzi
49	berrogeita bederatzi
50	berrogeita hamar
51	berrogeita hamaika
52	berrogeita hamabi
53	berrogeita hamahiru
54	berrogeita hamalau
55	berrogeita hamabost (berrogeita hamabortz)
56	berrogeita hamasei
57	berrogeita hamazazpi
58	berrogeita hemezortzi (hogeita hamazortzi)
59	berrogeita hemeretzi
60	hirurogei (hiruretan hogeia)
61	hirurogeita bat (hiruretan hogeita bat)
62	hirurogeita bi (hiruretan hogeita bi)
63	hirurogeita hiru (hiruretan hogeita hiru)
64	hirurogeitalau (hiruretan hogeita lau)
65	hirurogeita bost (hiruretan hogeita bortz)
66	hirurogeita sei (hiruretan hogeita sei)
67	hirurogeita zazpi (hiruretan hogeita zazpi)q
68	hirurogeita zortzi (hiruretan hogeita zortziq)
69	hirurogeita bederatzi (hiruretan hogeita bederatzi)
70	hirurogeita hamar (hiruretan hogeita hamar)
71	hirurogeita hamaika (hiruretan hogeita hamaika)
72	hirurogeita hamabi (hiruretan hogeita hamabi)
73	hirurogeita hamahiru (hiruretan hogeita hamahiru)

74	hirurogeita hamalau (hiruretan hogeita hamalau)
75	hirurogeita hamabost (hiruretan hogeita hamabortz)
76	hirurogeita hamasei (hiruretan hogeita hamasei)
77	hirurogeita hamazazpi (hiruretan hogeita hamazazpi)
78	hirurogeita hemezortzi (hiruretan hogeita hemezortzi)
79	hirurogeita hemeretzi (hiruretan hogeita hemeretzi)
80	laurogei (lauretan hoge)
81	laurogeita bat (lauretan hogeita bat)
82	laurogeita bi (lauretan hogeita bi)
83	laurogeita hiru (lauretan hogeita hiru)
84	laurogeita lau (lauretan hogeita lau)
85	laurogeita bost (lauretan hogeita bortz)
86	laurogeita sei (lauretan hogeita sei)
87	laurogeita zazpi (lauretan hogeita zazpi)
88	laurogeita zortzi (lauretan hogeita zortzi)
89	laurogeita bederatzi (lauretan hogeita bederatzi)
90	laurogeita hamar (lauretan hogeita hamar)
91	laurogeita hamaika (lauretan hogeita hamaika)
92	laurogeita hamabi (lauretan hogeita hamabi)
93	laurogeita hamahiru (lauretan hogeita hamahiru)
94	laurogeita hamalau (lauretan hogeita hamalau)
95	laurogeita hamabost (lauretan hogeita hamabortz)
96	laurogeita hamasei (lauretan hogeita hamasei)
97	laurogeita hamazazpi (lauretan hogeita hamazazpi)
98	laurogeita hemezortzi (lauretan hogeita hemezortzi)
99	laurogeita hemeretzi (lauretan hogeita hemeretzi)
100	ehun
101	ehun eta bat
102	ehun eta bi
200	berrehun
300	hirurehun
400	laurehun
500	bostehun (bortzehun)
600	sei ehun

700	zazpiehun
800	zortziehun
900	bederatziehun
1000	mila
1200	mila eta berrehun
1201	mila berrehun eta bat
1984	mila bederatziehun eta laurogeita lau
1.000.000	milioi bat
10.000.000	hamar milioi
1.000.000.000	mila milioi (miliar bat)

Hemen ohar batzuk egin beharrik dira, dena dela:

- *bi* harren ondoan dago *biga* ere, beti izenik gabe bakarrik erabiltzen dena.

- *Hemezortzi* jartzen den leku bakoitzean *hamazortzi* ere jarri behar da, bigarren aukera gisan.

- *Ehun eta bat* zenbakian ez da beharrezkoa *eta* hori oso-osorik ahoskatzea eta mintzairen arabera *eta, ta edo da* bezala ahoska daiteke.

- *Mila* zenbakiük gora *eta* kenduko da ondoren datozen ehunekoetan ere agertzen bada: *mila eta berrehun*, baina *mila berrehun eta bi*; *mila eta laurehun*, baina *mila laurehun eta bi*.

- *mila milioi* edo *miliar bat* esaten da.

- euskalki batzuetan milatik gorako zenbakiak chunka ere kontu daitezke: *hamabi ehun (mila eta berrehun)*, e.a.

Aipa dezagun hemen zenbait esapide jator baztertzen ari garelako susmoa har daitekeela batzuetan:

(45)	mila pezetakoa	=	1.000 pta
	hamar durokoa	=	50 pta
	bost durokoa	=	25 pta
	bost ogerlekakoa	=	25 pta
	mila durokoa	=	5.000 pta

mila ogerlekokoa = 5.000 pia

• Jakina denez, *bat* zenbatzailea artikularekin truka daiteke hainbat kasutan:

(46) *etxe bat* = *etxea*

Gaur egungo euskara mintzatuan eta idatzian ere, lehen hain ugari agertzen ez zen *bat*-en erabiltzeko joera handia dago. Arauak ematea kontu honetan erraza ez den arren, esan dezagun, norma bezala zenbakaitz diren izenek ez dutela artikulua besterik onartzen:

(47) \**hamar haize*

*Alde, inguru, aurre* eta hauen antzekoak ere sail honetan sartzen dira:

(48) ... beste *aldean* den erreka zolara jautsi baino lehen...

Balio generikoa duten izenek, zenbakarriak izan arren, ez dute *bat* onartzen:

(49) nekazaria beti dabil lurrarekin burrukan

*Bat* mugatzailea eta *a* artikularen oposizioa erabiltzen dugu sarri askotan ez-*ezagun* / *ezagun* oposizioa adierazteko. *Bat* zenbatzailea erabiltzen dugu, halaber, *bat* / *anitz* oposizioa markatzeko orduan ere.

Izen zenbakarriak izanik ere, gure informazioaren arabera mota horretako bat bakarra dagoela uste dugunean artikulua erabiliko dugu: *zerua, ilargia*, e.a.

Izen bereziak deusik gabe jartzen dira gehienetan, baina batzuetan *bat* zenbatzaileak laguntzen ditu:



(50) Axularrek ez luke horrela esango

(51) Axular *batek* ez luke horrela esango

Hemen, ikusten denez, "Axular bezalako batek" edo horrelako zerbeit esan nahi dugu segurki.

Nolanahi ere, lehen esan den bezala, arriskua gerta daiteke *bat* horren abusua egiteko, partitiboaren tokian jarritz, esate baterako.

*Bat* erabiltzen dugu gutxi gora-beherako zenbatasuna adierazi nahi dugunean. Ezkerrean izena baldin badarama, izen hau genitiboan eskatzen du eta zenbatzaile baldin bada, genitibo hori aukeran geratzen da:

(52) Hogeiren bat urte egon zen (= hogeit bat urte egon zen)

(53) ikasleren bat etorriko da (≠ ikasle bat etorriko da)

Pluralean *-tzuk* atzizkia hartzen du, kasu honetan komunizadura pluralean egin behar duenez aditzarekin.

(54) oilar batzuk erosi ditugu

• Zein da *bat* eta *batzuk*-en deklinabidea? Egia da, bereizketak egiten hasi nahi izanez gero, bi zenbatzaile hauen forma mugatugabea eta mugatuak deklinabideko kasu guztietan aurki daitezkeela, eta autore zenbaitek hala erabiltzen dituela ere. Zehazki gisaz, usadioa, mendeetan zehar idazleek izan duten usadioa, hartzen badugu kontuan, beldurrik gabe esan daiteke *batetan*, *batetatik*, *batetako* eta halakoak berriki arte guztiz baztertuak izan direla, hainbat euskalkitan ezagutu ere egin ez direlako eta erabiltzen zituztenek ere ahaztuxeak zituztelako. Batasuna egina zegoen alde horretatik (ikus *Orotariko Euskal Hiztegia*). Hori dela eta, hauxe da Euskaltzaindiak gomendatzen duen erabilera:

(55) bat	bata	batzuk
batek	batak	batzuek
bali	batari	batzuei
baten	bataren	batzuen
batekin	batarekin	batzuekin
batentzat	batarentzat	batzuentzat
batez	bataz	batzuez
balean (batengan)		batzuetan (batzuegan)
bateko		batzuetako
balera (batengana)		batzuetara (batzuegana)
batetik (batengandik)		batzuetatik (batzuegandik)

*Bat*-en deklinabide mugatua (*bata*, *batari*, e.a.), jakina, beste mugatu baten eraginpean bakarrik erabiltzen da:

(56) *batak* dio bai, eta besteak ez

(57) gauza hauek *bata* bestecaren ondoan jarri behar dira

• Batzuetan, zenbatzaileez baliatarik egiten ditugun ondoko esatera bauek ez dira balere zuzen erabiltzen hitz egitean:

(58) baso bat *ur*  
  baso bat *ur hotz*  
  hiri litro *ardo*  
  hiri litro *ardo gorri*

Goiko adibide horietan azpimarraturik agertzen dena da, hain zuzen ere, eskatu nahi dena. *Ura* nahi baldin badugu, eta ur hori *hotza* izatea gainera, honela eskatu beharko da:

(59) *baso bat ur hotz* nahi nuke

• Hemen bereizketa argia egin behar da, sarritan hiztun askok egiten ez dutena. Ondoko bi adibide hauek esanahi desberdina dute:

- (60) baso bat ur
- (61) ur baso bat

Lehenbiziko kasuan *ura* eskatzen ari gara, baso edo edalontzi batean sartzen den ura alegia. Edalontzi horrek ardoa nahiz ura edateko balio dezake, baina oraingo honetan urez betea dago. Beste hizetan jartzeko: *ur* izenaren determinatzailea *baso bat* da. Bigarren kasuan, ordea, ura edateko erabiltzen dugun *basoa* eskatzen ari gara, nahiz hutsik egon daitekeen. Hor izen konposatu bat dugu; *ur baso*, eta honek determinatzailea hartzen du: *bat*. Lehenbiziko kasuan ura eskatzen dugu, bigarrenean ordea edalontzia.

Ondokook ere horren pareko adibideak ditugu:

- (62) sei kilo kafe
- (63) bost litro ardo
- (64) dozena bat porru

Atrazoi beragatik gauza bat da *kamioi bat esne* eta bestea *esne kamioi bat*.

• *Bi* zenbatzailea izenaren ezkerretara nahiz eskuinaldera joan daiteke, euskalkien arabera. Erabilera hau, gaur bizkaierazkoa bakarrik bada ere, antzina euskararen eremu osoan aurkitzen zen:

- (65) *bi* etxe
- (66) etxe *bi*

Bestetik, zenbatzaile hau bakarrik daukagunean, izenik gabe alegia, itxura desberdinekin ageri zaigu, nongoak diren hizkerak:

- (67) *bi, bia, biga, bida, e.a.*

Lapurdin, *bia* erabili izan da. Ekialdeko gainerakoek (Etxepare, Leizarraga, zuberotarrek, mende honetako ia guztiek) *biga* erabiltzen dute. Penintsulako Nafarroan (Etxenike, Hualde, Borden), eta Xalbadorrek ere, *bida* hautatu dute. Mendebaleko guztiek beti *bi*.

• *Hiru eta lau* zenbatzaileen kasuan, Euskaltzaindiak uste du badirela hainbat arrazoi (historikoak, euskalkietako erabilera, e.a.) deklinatzeko orduan salbuespenzat hartzeko. Hori dela eta, hauxe proposatzen du:

1) *Hiru eta lau* izenak direnean (zenbakiaren erreferentzia hutsa dutenean, orduan bakarrik dira izenak), bokalez bukatzen diren gainerako beste edozein sintagmak bezala deklinatuko dira: *hiru, hirua, hiruak* (abs); *hiruk, hirukak, hiruek* (erg); *lau, laua, lauak* (abs); *lauk, laukak, lauek* (erg), e.a. e.a.

2) Izenordain baten funtzioa dutenean (alegia, sintagma berek bakarrik osatzen dutenean), honelaxe deklinatuko dira:

*Hiru*

(mugagabea)	(plurala)
hiru	hirurak
hiruk	hirurek
hiruri	hirurei
hirurik	
hirutan	hiruretan
hirutako	hiruretako
hirutatik	hiruretatik
hirutara	hiruretara
hiruren	hiruren
hirurekin	hirurekin
hirurentzat	hirurentzat
hirurez	hirurez

*Lau*

(mugagabea)	(plurala)
lau	laurak
lauk	laurek
lauri	laurei
laurik	
lautan	lauretan
lautako	lauretako
lautatik	lauretatik
lautara	lauretara
lauren	lauren
laurekin	laurekin
laurentzat	laurentzat
laurez	laurez

(kontuan hartuz, jakina, aipatu ez diren bestelako xehetasunak ere: *hiruetatik* nahiz *hiruetarik*, *hirurengana*, *hirurengandik*; *lauetatik* nahiz *lauetarik*, *laurengana*, *laurengandik*, e.a., bertoko eskema hau segituz).

Hemen proposatzen den eskema oso sinplea da, azken batean: beste edozein izen bezala deklinatzen dira, salbu "zenbatzaile plurala" denean, orduan "r" bat jartzen delako sistematikoki artikuluaeren aurretik.

• Gainerako *bat* eta *bi* ez beste zenbatzaile guztiak izenaren ezkerrean jartzen ditugu. Gutxi gora-beherako zenbatasuna adierazteko modu bat baino gehiago dugu. Horrela, esate baterako, *sei* zenbatzailea baino txikiago diren zenbatzaileekin, hiru bide hauen artean aukera dezakegu:

(68) *bi edo hiru* aldiz etorri da

(69) *bi hiru* aldiz etorri da

(70) *bizpahiru* aldiz etorri da

*Sei* zenbatzailetik goranzkoekin badirudi *edo* erabili behar dugula edo, bestela, *edo* hori kendu eta *bat* jarri azkenean (nahiz azken honek ez duen tradizioik literaturan):

(71) *zortzi edo hamar* aldiz etorri da

(72) *zortzi hamar bat* aldiz etorri da

Ez da hori hurbileko zenbatasuna adierazteko modu bakarra, jakina denez:

(73) *hogeiren bat*, *hogeit bat*, *hogeit lagun hurbil*, *hogeit lagun inguru* (ekialdean *hogeit lagunengana*), e.a. denak esan baitaitezke.

Zenbatzaile honek mugatzen duen izen sintagma inesiboan agertzen denean, denboraren erreferentzia baldin badu, zentuz plurala izan arren, zenbatzailea singularrean jartzen duete hiztun batzuek:

(74) azkeneko hamar urte *honetan*

• Zenbatzaile batzuek balio enfatuakoa dute: *bi, borts, zazpi, hamaika, hogeitaborts, ehun, mila, e.a.*:

(75) *hamaika* aldiz esana dizut hori, eta zuk kasurik ez!

(76) bereak eta *bost* eman zizkion

(77) *hamaika* nahigabe izan dut hori dela eta!

Halako sintagmek joera handia dute komunizadura singularrean egiteko aditzarekin!

Ongi dakigunez, *mila* ageri da eskerrak emateko orduan, esaterako:

(78) *mila esker nahiz esker mila*

• Orduak adierazten dituguncan aldaera bat baino gehiago aurkitzen dugu Euskal Herrian, hiztun eta hizkeren arabera. Badirudi ondoko hauek direla erabilienak:

(79) ordu bata	ordu batean
ordu bata eta bost	ordu bata eta boste(t)an
ordu bata eta laurden(a)	ordu bata eta laurdenetan
ordu bata t'erdiak	ordu bata t'erdietan
(ordu) biak	(ordu) bietan
(ordu) biak laurden gutxi(ago)	(ordu) biak laurden gutxi(ago)tan
hirurak (hiru orenak)	hiruretan (hiru orenetan)
laurak	lauretan
bostak	bostetan
seiak	seietan
zazpiak	zazpjetan
zortziak	zortzietan
bederatziak	bederatzietan

hamarrak	hamarretan
hamarrak eta bost	hamarrak eta boste(t)an
hamarrak eta laurden	hamarrak eta laurdenetan
hamar(rak) eta laurden(ak)	hamar(rak) eta laurdenetan
hamar t'erdiak	hamar t'erdietan
hamaikak	hamaiketan
hamabiak	hamabietan

Eguneko hamabiak direnean *eguerdi* edo *eguerdia* dela esaten dugu. Gueuz, berriz, *gauerdi* edo *gauerdia* da tenore horretan. Orduak, jakina, *noiz* eta *noiz arte* galderei erantzuten die:

- (80) *hamarretatik* nago hemen eta *hamaikak arte* egonen naiz.  
 (81) denda hau goizeko *zortzietatik* arratsaldeko *laurak arte* irekitzen dute  
 (82) badao herriko etxera *hamar orenak* baino lehenago

• Urteak eta data emateko ere modu bat baino gehiago dugu, arruntenak hauek ditugarik:

- (83) 1813  
 (84) 1983.1.21

Honela irakurriko ditugarik: *mila zortziehun eta hamahiru*, eta *1983ko urtarrilaren hogeita bat*. Krusten den moduan, *-ko* crasten zaio urtea adierazten duen zifrari, *-en* erantsiko diogu hilabeteari eta *-a(n)*, berriz, egunari. Beti ere, kontuan izan behar dugu zenbaki hori nola bukatzen den, kontsonantez ala bokalez:

- |      |         |         |
|------|---------|---------|
| (85) | 1981eko | 1981ean |
|      | 1982ko  | 1982an  |
|      | 1983ko  | 1983an  |
|      | 1984ko  | 1984an  |
|      | 1985eko | 1985ean |



Hila eta eguna bakarrik azpimarratu nahi baldin baditugu, bi modu ditugu aukeran:

- (86) urtarrilaren 20a  
urtarrilak 20

Azkeneko modua gaur egun barreiatzen ari den arren, ezin da Nolanahi erabili eta muga argiak ditu. Aposizioan edo tituluetan joan behar du:

- (87) gaur, urtarrilak hoge, arratsaldean elkartzeko asmoa dugu

Bestela desegokia da:

- (88) \*urtarrilak hoge hitzaldi bat entzun nuen  
(89) \*urtarrilak hogeian hitzaldi bat entzun nuen

Ikusten denez, itzuli honek ez du lekurik egitura gramatikalen barnean eta izenburuetan edo idazketa formal batean (irudietan, iragarkietan, e.a.) erabilizeko uzi beharko litzateke.

• Frakzioak honela ditugu (nahiz hemen jartzen ditugun moduak ez diren ditugun bakarrik):

- |      |      |                |
|------|------|----------------|
| (90) | 1/2  | erdi           |
|      | 1/3  | heren          |
|      | 1/4  | laurden        |
|      | 7/10 | zazpi hamarren |
|      | 2/5  | bi bosten      |
|      | e.a. |                |

Portzentaiak honela:

(91) %5 (ehuneko bost)

Eta kalkuluko eragiketak hauek:

Gehiketa: 5 gehi 5 berdin 10 ( $5+5=10$ )

Kenketa: 3 ken 1 berdin 2 ( $3-1=2$ )

Biderketa: 4 bider 3 berdin 12 ( $4 \times 3=12$ )

Zatiketa: 4 zati 2 berdin 2 ( $4:2=2$ )

• Nola egiten dute komuntadura aditzekin zenbatzailearen bat determinatzailetzat hartzen duten izen sintagmek? Ekialdean eta mendebalean joera desberdinak daudela esan dezakegu. Oro har, beldurrik gabe esan daiteke mendebalean singularrean nahiz pluralean egiten dela komuntadura, zenbatzailearen arabera: *bat* baldin bada singularrean eta, bestela, pluralean. Ekialdean ere horrela egiten dute hitzun eta idazle gehienek:

(92) hiru etxe ikusi ditut gaur arratsaldean

(93) hamar lagun bederen etorriko dira

Hala ere, badira hizkera batzuk, nahiz eta gutxienak diren, komuntadura hau beti singularrean eman nahiago dutenak:

(94) hiru etxe ikusi dut gaur arratsaldean

• Euskal ordinalak egiteko *garren* erasten diogu zenbatzaile hutsari:

(95) bi            bigarren

Zenbakia erabiltzen baldin bada, *garren* ordinal marka hori ez idaztea gomendatzen du Euskaltzaindiak, puntu bat jarritz horren ordez (hau da, *garren* esan beharko litzatekeen toki bakoitzean puntua jarzea gomendatzen da):

(96) 2.

Jakina, hortik aurrera artikulua eta kasu markak erants daitezke: 2. *lasterkaria, 2.a, Joan Paulo II.a, Federiko V.ak*, e.a. Ordena bati hasiera edo amaiera ematen diotenak honela izendatzen ditugu:

(97) lehen(engo)  
lehenbiziko  
lehendabiziko

(98) azken(engo)  
azkeneko

Zenbait euskalkitan, hala eta guztiz, *-engo* eta *-eko* atzizkia ez da mugatzen aipatuko kasuetara eta beste guztietan ere ageri da: *bigarren, bigarrenengo, bigarreneko*, e.a. *Bigarrenengo* eta kideko *-ko*-dunak mendebaleko kontuak dira ia erabat literatur tradizioan ageri direnak. Ekialdean *-eko* eransien zaic *-garren* hauci eta mendebalean, gehienbat, *-go*. Zenbait tokitan (NB, Zub), *hirugarren* ordinala erabili beharrean *heren* da agertzen dena. Adberbioak ere hemendik sor daitezke, *-ik* partitiboaren kasu marka erantsirik: *lehenik, aurrenik, lehenbizikorik, bigarrenik, azkenik*, e.a.

• Multzo batetik aukera egin behar dugunean *-eka, -etatik* (edo berdin *-etarik*) eta *-tan* atzizkiak erabiltzen ditugu:

(99) *zazpietatik* hoberena, *bigarrena* zen  
*bederatzietako* handiena, *lehenbizikoa* zen  
*bietatik* batean, hau nahiago dugu  
*bietarik* batean, hau nahiago dugu  
*bederatzietan* handiena, *laugarrena* zen

• Adjektibo biderkatzaileak *-kun* edo *-koitz* atzizkiez baliaturik egin ditzakegu:

(100)	bat	bakun bakoitz
	bi	bikun bikoitz
	hiru	hirukun hirukoitz

Beszelakoen aniztasuna ere bide beretik adieraziko da, nahiz bi atzizki hauen arteko mugak zein diren zeharritzea erraza ez den. Nolanahi ere, *bat* zenbatzailearen kasuan, kontuak aski garbi daudela dirudi: *bakoitz* (bakarra, edo halako zerbait) eta *bakun* (soila, simplea, bat duen zerbait).

• Distributiboak *-na* atzizkia erantsiz sortzen dira:

(101)	bat	bana bedera
	bi	bina, bira
	hiru	hiruna

Ekialde osoko literatur tradizioan *bira* esaten da, gauza bera suertatzen delarik bokalez bukatzen diren zenbatzaileekin: *seira*, *zazpira*, e.a. Hemendik *birazka* (ekialdean) eta *biraka* (Nafarroako zenbait tokitan). Distributibo hauek, bistan *denez*, aurrekaria pluraleraz eskatzen dute:

- (102) \*nik liburu *bana* erosi dut  
 (103) guk liburu *bana* erosi dugu  
 (104) nik liburu *bana* erosi diet (haiei, jakina)

Distributiboak edozein zenbakirekin sortzen dira: *hamarna, hogeitabina, hirurogeina, ehuna*, e.a. Hala ere, *mila* zenbakitik gora daudenek beste eredu hau hartzen dute:

(105)	mila	mila bana (*milana)
	bost mila	bosna mila (*bost milana)
	5.030	bost mila eta hogeitamarna
	bi milioi	bina milioi
	milioi bat	milioi bana

Distributiboetatik aditzondoak sortzen dira, *-ka* erantsiz distributiboari: *banaka, binaka, hirunaka*, e.a.

• Zenbatzaile zehaztuekin zerikusia duten esatera batzuk ere aipagarriak dira:

- (106) Maritxu, Jon eta hirurok hurbilduko gara  
(107) gaur zortzi (bihar zortzi, atzo zortzi, e.a.)

Azkeneko itzuli hau berdin erabil daiteke iraganari begira (*atzo zortzi etorri zen*) nahiz geroa kontuan harturik (*bihar zortzi etorriko da*).

#### 4.2.2. Zenbatzaile zehaztugabeak

Zenbatzaile zehaztugabeekin ez da inoiz ere zenbaki zehatzik aditzera ematen, handia nahiz txikia izan daitekeen multzoa baizik. Bestalde, hauek ere, besteak bezala, bakar bakarrik nahiz izen edo izenki baten ezkerrean edo eskuinean ager dakizkiguke. Garrantzizkoenak ondokook ditugu.

• *Batzuk*

Izen sintagmaren eskuinean jartzen da eta *bat* zenbatzailearen pluralizat jo izan da gramatikagileen artean. Komunztadura beti pluralaz egin behar du:

(108) *andre batzuk* ikusi ditut (\**du*)

• *Zenbait*

Ez du inolako mugatzailerik onartzen eta *bat* baino gehiago adierazten du, izenaren eskuinean nahiz ezkerrean jartzen ahal delarik:

(109) *zenbait* gaztek ez du inoiz ere ulertuko hori

(110) gazte *zenbaitek* ez du inoiz ere ulertuko hori

Komunztadura aditzarekin pluralaz nahiz singularrez egin dezake:

(111) *zenbait* zerri ikusi ditut (*du*)

Honez gainera, *-izu* atzizkia ere erants dakioko eta orduan *zenbaitzu* ematen du, komunztadura beti pluralaz egin behar delarik.

Kontuan har dezagun, hitzun batzuek nahasten dituzten arren, *zenbait* (zenbatzailea) eta *zenbat* (galdetzailea) bi gauza desberdin direla.

• *Asko*

Aurrekoa bezala, hau ere izenaren ezkerrean (ekialdean batez ere) nahiz eskuinean (mendebalean) joan daiteke:

(112) *asko* gizon

(113) gizon *asko*

Komunizadura singularrean edo pluralcan egin dezake:

(114) liburu *asko* erosi ditut (dut)

Partitiboa ere erabiltzen dugu maiz kara absolutiboaren ordezt:

(115) *libururik* asko erosi zuten

(116) *eskerrik* asko

*Asko* zenbatzaileak (garai batean *aski* bezala erabilia) aditzondoaren balioa hartzen du zenbaitetan, aditzak orduan singularra eskatzen digularik:

(117) horrek *asko* balio du

Kontura gaitzen *asko* hau berdin joan daitezkeela izen zenbakaitzekin (masa modura hartzen ditugunak) nahiz zenbakarriekin, esanahiz aski ongi bereizten diren sintagmak osatuz horrela:

(118) harri *asko* bota dute/\*dituzte (= zenbakaitza, masa)

(119) harri *asko* bota dute/dituzte (= zenbakarria)

Batzuetan *biziki*, *aski*, *txit*, ... ere esan nahi du, maila adberbio delarik halakoetan:

(120) *asko* goiz itzuli zen (*aski* goiz itzuli zen)

Normalagoa da, hala ere, *asko* hau atzean jarzea:

(121) goiz *asko* etorri dira

Eta *gehiegi* edo *larregi* adierazteko ere erabiltzen da:

(122) *askotxo* irabazten du horrek

Zenbait gramatkarik uste duenez, *asko* ezin da erabili ondoko kasu hauetan: *izan* aditzaz baliaturik egiten ditugun aditz batzuekin (*beldur izan*, *gose izan*, e.a.); *maite izan*, *maite ukan* aditzarekin; izen zenbakaitz batzuekin (*beldur handial\*asko*, *hotz handial\*asko*); e.a. Ohartu gaituzen legeak ez direla estu-estuak, hala ere, gauza bat baita *su handia* (su bat bakarra) eta bestea *su asko* (su bat baino gehiago dugunean). Bereizketa hau hainbat izenekin egin liteke.

*Askoren* ordeztu euskalki zenbaitetan beste adjektibo eta adberbioak ere erabiltzen dira, anbiguetateak sortuz maizkara:

(123) egin duk besta *poliki*?

(124) belaralde *ederra* bildu dugu aurtan

Mintzaira batzuetan *asko* artikulua eta guzti agertzen zaigu, izenondo baten ondorio eta harridurazko esaldietan (beste batzuek *aski* nahiago dute hemen, edo *ondo* eta *ongi* ere, baina hauek ez dute halako pisurik literatura tradizioan):

(125) polit *askoa* da etxe hura!

(126) gizon jator *askia* da hori!

• *Anitz*

*Anitz* izenaren ezkerrean edo eskuinean agertuko zaigu eta *askoren* pare-parekoa dugu, euskalkien arabera bereizten direlarik biak:

(127) etxe *anitz*

(128) *anitz* etxe



• *Guti*

*Guti* zenbatzaile zehaztugabea (*gutxi*, *gutti* eta *gitxi* bezala ere erabilia) *asko* edo *aunitzen* kontrakoa da, beti ere izenaren eskuinaldean jartzen dugularik. Izen sintagma pluralizat jotzen da, nahiz komunztadura aditzarekin singularrean ere egin dezakeen. Batzuetan mugatzaile eta guzti ageri da:

(129) ikaste *gutxi* etorri zen

(130) arras *gutiak* dira horrela pentsatzen dutenak

*Askorekin* gertatzen den bezala, sintagma adverbial gisa ere erabiltzen ahal dugu:

(131) hori *guti* gustatzen zait

Halako kasuetan, *askorekin* ez bezala, maila adverbio bat har dezake ondoren:

(132) hori *arrot* *guti* gustatzen zait

• *Honenbeste* (eta kideak)

Zenbatzaile hau (eta honekin batera *horrenbeste*, *hainbeste*) izenaren ezkerrean jartzen da, komunztadura singularrean edo pluralean eginez:

(133) nik *honenbeste* urte ditut (dit)

Jakina den bezala, batzuetan *asko* zenbatzailearen eremua hartzen du *hainbeste* zenbatzaileak:

(134) *hainbestetan* ikusi zaitut

• *Franko*

Zenbatzaile zehaztugabe honen esanahia *asko*, *ugari*, *aski* edo *nahikoren* ingurukoa da, maila adberbio osatzen duela hemen:

(135) nafarrak *franko* luzea zuen sudurra, baina mehea

Hor esan nahi duguna da nafar horrek *aski* edo *nahiko* luzea duela sudurra. Erabileraren aldetik, modu asko aurkituko dugu. Izenaren ezkerrean nahiz eskubian jar daiteke:

(136) *bada* [deabru *franko*] saildu itxura hartzen duena

(137) *bada* [*franko* deabru] saildu itxura hartzen duena

Kasu horietan, komunztadura nahi den bezala eginen da aditzarekin, singularrez nahiz pluralrez:

(138) *badira* deabru *franko* saildu itxura *dutenak*

(139) *bada* *franko* deabru saildu itxura *duena*

Izenak mugatzailea ere har dezake, singularrez eta pluralrez, baina orduan komunztadura ere bortxaturik geratzen da singularrera edo pluralera, plural markaren arabera, eta izena beti zenbatzailearen aurrean jartzen dugu:

(140) *bada* lana *franko* herri honetan

(141) *gizona* *franko* ikusi *dut* gaur mendian

(142) *gizonak* *franko* ikusi *ditut* gaur mendian

Partitiboarekin ere berdin:

(143) *gizonik* *franko* ikusi *dut* gaur mendian

Zenbait kasutan izenondoa mailakatzeko maila adberbio bezala erabiltzen da *franko* (*oso* erabiltzen dugun moduan alegia, nahiz esanahia ez den berdina), orduan sintagnak artikulua behar duelarik:

(144) *franko* (gizon) *ona* da

(145) *franko* (gizon) *onak* dira

Izenondoak ez ezik, aditzondoak ere mailaka ditzake:

(146) *franko* *ederki* jotzen du gitarra

Esan dezagun, azkenik, adberbio hutsa bezala ere erabiltzen ahal dela, bera bakarrik:

(147) *frankotan* entzun dugu halakorik, baina ahaztu egiten baitzaigu ordea.

• Euskaraz ez dira aipatu ditugun hauek zenbatzaile zehaztugabe bakarrik. Hauekin batera aipatu behar dira *pixka bat*, *apur(ixo) bat*, *xorta bat*, *pujka bat*, *pittin bat*, *dexente*, *nahiko*, *makina bat*, e.a. Kontuan hartu behar dugu, nolana ere, zenbatzaile hauek testuinguru batzuetan bakarrik erabil daitezkeela, ez nolana ere. Lekuari dagokionez ere, batzuetan izenaren ezkerrean jarri behar dira, eta beste batzuetan, berriz, eskuineko partean, zein den zenbatzailea. *EGLU*-lean einaten den informazioa ikus daiteke.

#### 4.2.3. Zenbatzaile orokorrak

Zenbatzaile hauek orokortasuna, osotasuna, hartzen dute kontuan. Hiru ditugu sail honetan sartzen direnak: *dena*, *guztia* eta *oro*, lehenbiziko biak pluralean ere jar daitezkeelarik:

(148) mutiko honek *dena* daki

(149) *denak* sartu ziren gela hartan

(150) *guztiak* zutitu ziren

Adibideetan ikusten denez, zenbatzaile hauek distribuzio bera dute izenik gabe erabiltzen ditugunean. Aposizioan ere erabiltzen dira, dela aurrekoa erakusle hutsa dutela (izenordainaren funtzioan),

(151) hauek *guztiak* etorri dira

(152) hauek *denak* etorri dira

dela aurrekoa sintagma osoa dutela, izenarekin eta erakuslearkin osatua:

(153) neska-mutil hauek *guztiak* etorri dira

(154) neska-mutil hauek *denak* etorri dira

Gaur egun bada jocra *guztiak* beste honela erabiltzeko ere, nahiz literaturako tradizioa ez den batere horrelakoa:

(155) neska-mutil *guzti hauek* etorri dira

Hori ezin da egin, dena dela, *denak*-ekin:

(156) \*neska-mutil *den hauek* etorri dira

Erakuslea jarri beharrean artikuluekin ageri denean zenbatzailca, orduan ere berdintsu gertatzen da:

(157) neska-mutil *guztiak* etorri dira

(158) neska-mutil *denak* etorri dira

Erabilera klasikoa eta tradizioz handienekoa, *guztiak* zenbatzailearen kasuan, goian aipatu duguna da: zenbatzaile hau

sintagmaren aposizioan doa, eta aurreko izen sintagmak beti erakuslea behar izaten du:

(159) *etxe hauek guztiak* pintatu omen dituzte gaur goizean

(160) *mendi hauetara guztiara* joateko asmoa du Koldok

Harrenbestez, erabilera hauek dute tradizioirik handiena:

(161) *etxe guztiak*

(162) *etxe hauek guztiak*

Bi zenbatzaile orokor hauek balio enfatukoa emateko orduan errepikatuz ematen ditugu:

(163) *zer ikasi duzu: den-dena?*

(164) *ikasle guzti-guztiak* etorri omen dira gaur

*Guzti* eta *denarekin* batera, zerbaiten osotasuna, eta ez zati bat, adierazi nahi duguncan, *oso* ere erabil daiteke, izenak zaitugarria den zerbait adierazten badu. Kasu hauetan izena singularrean joan ohi da. Orduan *guzti* zenbatzailearen parekoa litzateke:

(165) pastel *osoa* jan zigun

Jakina, partitiboan ere jar daiteke zenbatzailea eta orduan aditzondo haren funtzioan dugu:

(166) pastela *osorik* jan zuen

(167) pastelak *osorik* jan zituen

*Oro* zenbatzailearen jokabidea desberdina da. Beste biak bezala, hau ere izenaren eskuinean jartzen dugu, kasu marka zenbatzaileak berak hartzen duelarik:

- (168) *gizon oro hilkorra da*
- (169) *gizon orok badaki*
- (170) *herri orotan gauza bertsuak gertatzen dira*

Badu, hala ere, beste erabilera bat *oro* zenbatzaile honek:

- (171) *gizonak oro hilkorrak dira*
- (172) *gizonek orok esan dute*

Adibideetan ikus daitekeenez, zenbatzaileak, beti bezala, kasu marka hartzen du (artikulua ez, inoiz ere), baina ezkerrean duen izenak ere halaber artikulua eta kasu marka har dezake, pluralean uzten dugularik. Askotan aurreko sintagmari erakuslea eskatzen dio. Kasu hauetan guztietan zenbatzailea aposizicoin doala esan liteke:

- (173) *mendi horietan orotan* egin du elurra gaur
- (174) *adiskide horiekin ororekin* joango gara afaltzera

Dena dela, zenbatzaile honek beti plurala eskatzen du erabilera honetan (hau da, aposizicoin doanean):

- (175) \**gizonak orok* esan du

Aipatu behar dugu, azkenik, zenbatzailea bakarrik ere agertzen ahal dela:

- (176) *orok* dakite
- (177) *ororen* laguna da

### 4.3. **Determinatzaile zehaztugabeak**

Determinatzaileen artean, hauek osatzen dute azken multzoa. Gramatikarien artean, sail honetan sartu ditugun determinatzaileek izen

desberdinak hartu izan dituzte: determinanteak, predeterminanteak, prepositiboak, e.a. *EGLU*-lean ere *notakotzaille* izenarekin ageri dira, oso gogoko inoiz ere izan ez dugun izenarekin alegia. Horregatik proposatzen dugu hemen beste hau. Multzo honetan sailkatzen dira, hain zuzen ere, determinatzaile bai, baina mugatzaile edo zenbatzaile ez diren gainerako guztiak. Normalean izenaren ezkerrean jartzen dira eta ez dute mugatzailerik onartzen. Honakook ditugu:

zein	zeinahi	zeingura	edozein
zer	zernahi	zergura	edozer

Adibide batzuk jarritz:

(178) *zer* etxe da hau?

(179) *zernahi* gauza entzun behar izan genuen

(180) *edozer* gauza esango dizu horrek

Ohart gaitzen determinatzaile zehaztugabe hauek (anitzetan galdetzaile diren hauek alegia), izena ezabatua dutela ere agertzen ahal zaizkigula:

(181) *zer* da hau?

Gramatika batzuetan, horregatik, izenordain modura sailkatuak izan dira. Hala ere, ez dirudi izenordainak direnik, izena beu hartzen ahal baitute alboan:

(182) *zer* (*gauza*) da hau?

Sail honetan sailkatu izan da inoiz *beste* hitza ere.